

2014ko Martxo



Oñatiko Udala 237. zkia.

KONTZEJUPETIK



Batu feminismora!

Udal Berdintasun sailak eta herriko Sare Feministak
hainbat ekitaldi antolatu dituzte **martxoaren 8aren harira**

italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

**KURTZEKUA
PROMOZIOA**

(12 etxebizitza)


Prezio bereziak!



Ramón Irizar kalea 2 • 20560 OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

➔ Liburutegiko BERRIAK


Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua



Noam Chomsky
Prioridades radicales

LIBURUA

"Prioridades radicales"
Noam Chomsky. Laetoli.



Eusebio Osa
Belaunaldi baten lekuko

LIBURUA

"Eusebio Osa: belaunaldi baten lekuko"
Pako Sodupe. EHU.



Recorridos a los castillos del Reino de Navarra
Nafarroako Erresumaren gazteluetarako ibilbideak

LIBURUA

"Nafarroako E. gazteluetarako ibilbideak"
Juan Maria Feliu. Herritar Berri.




EL PAN

Manual de técnicas y recetas de panadería

LIBURUA

"El pan: manual de técnicas ..."
Jeffrey Hamelman. Libros con Miga.



MANUAL MERCK
DE INFORMACIÓN MÉDICA GENERAL

LIBURUA + CDa

"Manual Merck de información médica general"
Oceano.



BASOAN BARRENA
ANTHONY BROWNE

HAUR LITERATURA

"Basoan barrena"
Anthony Browne. Kalandraka.



Edición ampliada y actualizada
5ª Edición
LA JUSTICIA
La respuesta está en el Colágeno

OSASUN LIBURUA

"la respuesta está en el colágeno"
Ana Maria Lajusticia. Edaf.

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 -13:00 / 16:30-20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 -19:30



TXALOKA LUDOTEKA IBILTARIA

11.30-13.30 OLAKUAKO PORREAN

MARTXOAK 8 MUSIKA SORTUZ

MARTXOAK 15 ZIRKO TAILERRA

MARTXOAK 22 HERRI KIROLAK


MARTXOAK 29 JOSTAILUAK SORTUZ





UDAL BERRIAK

- 4 Gutunak
- 6 Tokiko Gobernuari Galdezka
- 7 Talde politikoen iritziak
- 8 Herritarren iritziak
- 10 Uraren tarifakazio berria
- 12 San Martin guneko plan partziala aldatzea onartu du Udalak
- 13 Landa-bide nagusien ibentarioa
- 14 Enpresa ekimen berriei laguntzeko lau bulego berri egin ditu Udalak Olaburun
- 16 Emakumeenganako tratu txarren aurkako gida kaleratu du Udalak




GURE HERRIAN

- 19 Kobazuloen Eguna, martxoaren 9an
- 19 Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoak
- 19 TXANDAREN Otlet-a
- 20 Goiener kooperatibak bere proiektua aurkeztuko du Oñatin
- 22 Baketzeari buruzko hitzaldi-solasaldia
- 23 Eskubide Sozialen Karta
- 24 Asteburua zaldi artean
- 25 Eskolarteko Bertsolari Txapelketa





KIROLAK

- 30 Hegaldi luzeak parapentean
- 30 Areto bizikleta erronka kiroldegian
- 32 Oñatiko duatloia, martxoaren 15ean
- 32 Josune Odriozola, bosst domina Espainiako Igeriketa txapelketan
- 33 Sergio Garcia eta Sara Gomez Espainiako Kros txapelketara



KULTURA

- 30 Pako tabernako kontzertuak
- 31 'Oñati 3izirik' diskoaren aurkezpena
- 32 Irakurketa Erraza ekimena jarri du abian udal liburutegiak
- 34 Martxoko kultur ekitaldiak
- 36 ETEOko proiektuaren bigarren fasea
- 38 Antxiñako Fotografixia



irritziak





SAN LORENTZOKO ESPALOIAK

? Irisgarritasun eta mugikortasun planak direla eta, hainbat hobekuntza egin dira herrian zehar, baina gelditzen diren beste batzuen artean, premiazko behar bat ikusten dut: San Lorentzon bizi garenok igogailua erabiltzen ez dugunean errepidetik mugitu behar gara auzoan gora eta behera, espaloiak guztiz txipittuta daudelako, honek dakarren arriskuarekin. Egoera hau kontuan hartu al da?

▶▶ San Lorentzon irisgarritasun plan orokor bat dago garatuta eta fasez fase ari gara gauzatzen. Auzoan eratua dagoen batzarrarekin zehazten ditugu urte bakoitzean garatu beharreko faseak. 2014rako bi fase egitea eta 350.000€-tako aurrekontua dago aurreikusita. Fase bakoitza, epeak eta lehenetasunen arrazoiak ezagutzea nahi duten bizilagunak eskatu dezatela auzo batzarrarekin edo/eta zinegotziarekin hitzordua.

ISTRIPU ARRISKUAK

? Azkoagain aurrealdeko errepide tartean apartkatzea debekatu zen, baina oraindik ere oso arriskutsua da gune hori, kotxeak abiada handian pasatzen direlako. Abiada motelarazteko neurriren bat jartzea pentsatu al duzue?

▶▶ Errepide hori aldundiaren eskumenekoa da eta komentatzen dituzun neurriak hartzeko eskaria egina dago aspalditik. Bere garaian aldundiko teknikoak hurbildu ziren aztertzeraz eta ez zuten neurriok hartzea beharrezko ikusi. Berrito luzatuko dugu eskaria aldundira.

ANTIXENAKO ETXEA

? Antixenako etxea Udalak eskuratu du eta, badirudi, begi onez ikusten duela gaztetxe jarduera bertan. Jakin nahi nuke Udalak ze akordio daukan Gaztetxearekin, eta zein baldintzatan uzten dion eraikina?

▶▶ Momentuz akordio batera iritsi gara MUREkin baina oraindik ez dugu gauzatu eta beraien erabilerakoa izaten jarraitzen du. Behin gauzaturik erabaki beharko genuke gune horri dagokion gestiorako zein nolako hitzarmen eta baldintzak egokitu.

Dena den, elkarte ezberdinekin (Kultur elkarte ezberdinak, Pake Leku, Ludoteka,...) udal eraikinak erabiltzearen lotuta ditugun hitzarmenen antzekoa izan beharko litzateke, beti ere Gazte Asanbladarekin adostua.

TOKIKOARI GALDEZKA

Tokiko Gobernuarentzako galdera, kexu edo kezka bat baldin badaukazu, bidali kontzejupetik@oinati.net helbidera

ALTUBE ZERBITZUAK
Portu Kalea 5
20560 Oñati
Gipuzkoa

MAPFRE
Tel.: 943 78 12 65
943 78 33 97
Faxa: 943 78 07 85

TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

oposiziotik

Lourdes Idoiaga -EAJ

PERTSONAK

BILDUren Oñatiko Udala Gobernuak, prentsa ohar bat argitaratu zuen "2013ko Enplegu sorrera" Oñatin aipatuz, non aurreko legealdiko zenbait datu alderatzen zituen. Baina horrez gain, EAJK "gezurra" esan eta PERTSONEN aurretik "hormigoia eta megaproiektuak" jartzen zitueneko akusazioa egiteko aipetatu zuen.

Oñatiko EAJK ez du inolako oharrik kaleratu gai horretaz, ondorioz, gezurra esaten duela dioen akusazioa faltsua da.

Eta EAJK gidatutako legealdiari dagozkion datuetan, 43.100€ tarteko, Oñatin Autoenpleguaren bidez sortutako **37 enpleguak** bakarrik aipatzen ditu eta Bilduk 76.800€. Egia da, baina zergatik ezkutaten ditu benetako Enplegu Plan bat osatzen zuten gainontzeko ekimenak? Egia osoa ez esatea gezurra esatea izan daiteke.

Krisiaren ondorioei aurre egin nahian abian jarri genuen lehentasunezko proiektua izan zen 2007-2011 Enplegu Plana, eta Autoenplegua sustatzeak besteko garrantzia edo handiagoa zuten beste ekimen batzuk biltzen zituen, baina "ahaztu" egin zaidio honakoak aipatzea:

Datuak hor daude, eta PERTSONAK, letra larriz idatzita, beti izan dira lehentasun EAJK zuzendutako Gobernu aldietan.

- Lanik gabe zeuden **74 herritarri** lana eman zitzaie, Udalak horretan 443.443,98€ inbertituz.
- Beste **579 herritarri** enplegurako formazioa eman zitzaie, 67.293€ inbertituz.
- **Enpresa txikietan** kontratazioak egiteko **laguntza programa** bat ezarri zela, 36.000€ko aurrekontuarekin.

Enplegu Plana guztira, 1.011.224,4€ takoa izan zen, eta horietatik **589.836,98€**, **zuzenean Udalak finantzatu zituen** eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eta ezin ahaztu, krisiak geldiarazi zituen industriarako lurzoruko birkalifikazioak egiteko ahaleginak.

Ez da zintotasunez jokatzeko, egia osoa esan gabe horren akusazio larriak egitea, izan ere, **datuak hor daude, eta PERTSONAK, letra larriz idatzita, beti izan dira lehentasun EAJK zuzendutako Gobernu aldietan.** "Norberarena" defendatzeko ez dago "bestea" iraindu beharrik.

gobernutik

Maialen Urzelai - Bildu

EMAKUMEON AUTONOMIA ETA ERABAKITZE ESKUBIDEAREN DEFENTSAN!!!

Martxoak 8, Emakumeon Nazioarteko egunaren ataritan gauden honetan, aurreko abenduaren 20an, **Españaiko ministroen kontseiluak** onartutako lege proiektu baten aurreproiektua ekarri nahi dut gogora. Aurreproiektu horrek **emakumeon autonomiaren kontra** egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarritzko giza **eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboen aurka.**

Hamarkadatarako **borroken bidez lortutako** eskubidea zartada batez ezabatu nahi dute: emakumeok gure bizitza sexual eta erreproduktiboaren inguruan **erabakitze eskubidea** izatea, alegia, inolako tutelarik eta jarraipenik gabe. Egin asmo duten kontrarreformak emakumeon autonomia urratu, emakumeon heldutasuna, erabakitze gaitasuna eta ardura ukatu eta infantilizatu egiten gaitu, abortatu ahal izateko beste batzuekiko menpekotasuna ezarri. Hala, gure gorputzak **Estatuak eta medikuntzak interbenitutako erreproduktzio hutsera murriztu ditu.** Finean, lege egitasmo honek gutxietsi egiten gaitu; gure borondatea eta gure **bizitzarekiko kontrola eskuetatik kendu eta Estatuaren tutelapean ezarri.**

Gaur egun, haurdunaldia bilatu gabe haurdun geratu izana izan ohi da haurdunaldia eteteko arrazoi nagusia. Bada, kontrarreformak emakume guzti horiek ama izatera behartu nahi ditu, emakume guzti horien bizitza baldintzatu. Eta, era berean, haurdunaldia bilatua izan arren, malformazioak edo gaixotasunak identifikatutako kasuetan **erabakitzeo aukera ukatu nahi dute, edozein modutan haurdunaldiarekin jarraitzea behartuz.** Bortxaketarik legokeen kasuetan soilik baimendu nahi dute abortua baina horretarako salaketaren baldintza jarri, jakin badakitenean bortxaketa asko salatu gabe geratzen direla.


Edozein modutan, gauza **jakina da lege murriztaileek ez dutela abortu-kopurua gutxituko.** Haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak klandestinitatera edo atzerrira joatea behartuko ditu. Baliabide ekonomiko gutxi dituzten emakumeek klandestinitatera joko dute, emakume izateagatik jasotako bazterketari klase edo egoera sozio-ekonomikoarena batuz.

Gallardon, Españaiko sektore atzerakoiei keinu egin nahi izan diezu proposamen honekin... Ez izan zalantzarik **aurrean izango gaituzula hortzak erakutsiz gure autonomiaren eta erabakitzeo eskubidearen defentsan,** azken hamarkadotan emakumeok gure gorputzaren jabe izan gaitezen borrokatu eta sufritu duzuen guztion lekukoa hartuta! **Gure gorputza, gure erabakia!! Martxoaren 8an ere denok kalera!!**

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI
Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitatea:**  publi@oinati.net



GUTUNAK

Gutunak ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorlaren izen-abizenak eta harremanetarako telefona bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Oñatiko EAJren aurkako erasoak iraganeko garaien ispilu

Mikel Iturrospe, Oñatiko EAJ-PNVren izenean

Azken egun hauetan Oñatiko kaleetan kartel eta pegatina iraingarriak ikusi ditugu Lourdes Idoiaga, udaletxeko gure bozeramalearen irudia erabiliz. "Lourdes lapurra" lelopean, iraganeko salaketak egin dituzte kanpaina honen egileek. EAJ-PNVren eta bereziki Lourdes Idoiagaren aurkako kanpaina honen helburua Alderdia eta pertsona bildurtzea, desprestijiatzea eta oñatiarren gogoan eragitea baldin bada, 119 urte dituen Alderdi politiko abertzale honek, EAJ-PNVk, argi eta garbi esaten die aurpegia estalita kartel hauek jartzen ibili diren "balientei" iraganeko garaietan kokatuta jarraitu nahi badute oñatiar eta euskaldun guztion bake nahari bizkarra eman diotela. Diana batean pertsona bat jartzea oso erraza da eta ezker abertzalearen praktika izan da urte askotan zehar. Giza eskubideen aldeko apustua egin du beti EAJk, bakearen aldeko apustua eta normalizazio politikoaren aldekoa, eta horrelaxe jarraituko dugu.

Oñatiko kanpaina honekin batera, denbora berean, Eskoriatzako batzokian ikurrina desagertu da, eta gure alderdikide batek idatzi duenez, ez dirudi Ynestrillas eta bere lagunak izan direnik, hortik metro gutxitara dagoen beste ikurrina bat bakean utzi bai dute. Ynestrillas ez, baina kanpaina hauen egileak ultraeskuindar espainolak praktikatzen duen faszismoaren parekoak dira oñatiar enkaputxatu baliente hauek bezalaxe. EAJ-PNV ez da kikilduko ekintza hauen aurrean. Kartelak jarriko dituzte, demokrazian eztabaidetan aritzeko argumenturik ez daukaten "ekintzaila" hauek, pertsonak eta bere ibilbideak zalantzan jartzen eta iraintzen saiatuko dira baina gauza bat esan nahi diegu argi eta garbi: ez gara probokazioetan jausiko. EAJ-PNVk beti egin du giza eskubide guztien alde, beti egin du bakearen alde eta batez ere,

sinisten dugu Euskal herri baketsu eta normalizatu baten bidean gaudela eta horren aldeko apustuan jarraituko dugu. Oñatiko "komando kartel" eko baliente hauek zeren aldeko apustua egiten dute? Oñatiarren arteko liskarraren alde? Argumentu eta metodo patetikoaren alde? Ala Euskaldunon normalizazio eta bakearen aurka? Zuen salaketaren arira, ez zarete nonbait oraindik ohartu gaur egun ideia politiko guztiak daudela legalizatuta, guztiok duzuela ahotsa emateko eskubidea, baina aurrez aurre, aurpegira, ez duzue kaputxaren beharrik eta gaez kartelak jartzen ibili beharrik. Esan beharrekoa, esaiguzue egunez, oñatiarren aurrean eta aurrez aurre.

Eraiki dezagun errespetuan oinarritutako agertokia

Aitor Lizarralde (Sortu), Ekhiñe Zurutuza (Ernai) eta Naiara Arregi (LAB)

Gure Herrian, iraganeko gertatutakoari buruzko ikuspegi anitzak daude eta egongo dira. Urte hauetan guztietan gertatutakoari buruz hitz egin behar dugu, etorkizuneko gizartea eraikitzeko ezinbestekoa baita. Ziur asko, eta esaera zahar zulu batek dioenari aipamen eginez, "egia guztiak mikatzak dira" guztiontzat, baina beharrezkoa gehitu beharko genuke.

Ezker Abertzalea horretarako prest dago eta nahi duten guztiekin gure herrian jazotakoari buruz hitz egiteko prestutasun osoa dugu. Ezker Abertzalea gure herrian bakea eta bizikidetzara eraiki ahal izateko ekarpenak egiten ari da. Aro berri bati bide eman ahal izateko gure esku dagoen guztia egiten dugu eta aitortu behar da. Ahalegin honek, haatik, ez du ekarri zuzenean nahiko eta desiratuko genukeen egoera eta badira beste indarkeria mota batzuk, amaitu behar dutenak.

Gatazkak oso ondorio latzak izan ditu euskal herritar askorentzat, eta baita oñatiarrentzat ere. Indarkeria adierazpen anitzek eragindako mina eta sufrimendua onartzen dugu eta alde batean sufritu dutenekiko erakutsitako sentsibilizazio maila falta izan zaigula beste aldean sufritu dutenekiko ere. Eta horrela adierazten dugu Ezker Abertzalea osatzen dugun erakunde ezberdinek.

Beste batzuek aldiz, ez dute eragindako minaren onarpena egin. Mina sortzen baitu astero-astero senide eta lagunak bisitatzeko milaka kilometro egin beharrik, mina sortzen baitu kale eraso bat egin izanagatik Sevillan isun bat izango zena gure herrian 13 urteko espetxe zigorra jasotzerainoko kondena izateak, mina sortzen baitu herriko ordezkari hautatua izan eta beste herritar batek dagokizun eskubideaz jabetzen ikusteak, mina sortzen baitu gune/amets autogestionatu bat eraikitzen aritu eta Ertzaintza gunea eraistea eta herriko gazteak egurtuak izaten ikusteak, mina sortzen baitu... Min larregi daroagu herri txiki honetan.

Eta mina sortzen duten ekintza guzti hauek diseinu bat (dispertsio politika, X eta Y taldeen teoria, ilegalizazioa eta beraz baliatzea, Gazteen kriminalizazioa,...) eta arduradun batzuk izan zituzten (PP-PSOE-PNV) eta ez dugu hauengatik inolako autokritikarik entzun.

Mina sortzen du halaber, eta horrela onartzen dugu, zilegia den kritika politiko edo sozial bat egiteko herriko ordezkari bat karikaturizatzea eta herria bere irudiz betetzeak. Argi utzi nahi dugu Ezker Abertzalea osatzen dugun erakundeok ez daukagula inolako erantzukizunik gertakari horiekin.

Errespetuan oinarritutako adiskidetzara sustatzea eta guztien minaren ezinbesteko aitortza egitea beharrezko dira eta kasu honetan ere horrela egiten dugu. Gogor lan egin beharko dugu urte hauetan guztietan irekitako zauriak sendatu ahal izateko eta elkarbizitza eraikitzeko. Erakusten ari garen bezala horretarako prest gaude.

Gure gorputza, gure erabakia: abortatzeko eskubidea orain!

Miren Intxausti, Oñatiko Sare Feministaren izenean

Espainako Gobernuak, Gallardon Justizia ministroaren bitartez eta Eliza katolikoak familia eredu tradizionala, patriarkala eta heteronormatiboa indartu nahi du, eta bide horretan haurdunaldiaren borondatezko etetea legez kanpo utzi nahi du.

Horretarako, moralitatean oinarritutako eztabaida etikoetan korapilatzen gaituzte, eta errealitateari buruzko datuak manipulatzeko.

Haurdunaldia etetea erabakitzen duten hamar emakumetik bederatzik, haurdun geratu nahi ez dutelako erabakitzen dute. Haurdun daudela jakin eta ia berehala hartutako erabakia da: abortuen %97,7a lehenengo 14 asteetan praktikatzeko dira eta hauen %54a lehenengo 7 asteetan. Adinari dagokionez, %60a 18-30 urte bitartekoak dira eta %37a 18-25 urte bitartekoak.

Abortatzea, beraz, ez da inkontzienteki eta kapritxo hartutako erabakia, baizik eta modu kontzientean hartutakoa.

Badakigulako gure gorputzekin eta bizitzekin zer egin nahi dugun, askeak garelako. Gure gorputzez, gure sexualitateaz, gure bizitzez nahi dugun bezala gozatzeko eskubidea dugulako.

ABORTUAREN PENALIZAZIOAK ZERA DAKAR:

- ABORTATZEA = DELITUA.
- Beste herrialde batera joanez abortatu ahal izango dutenak baliabide ekonomiko handiak dituztenak izango dira.
- Ez gaitu gure gorputzaren, bizitzaren, sexualitatearen eta amatasunaren gaineko pertsona autonomotzat hartzen. Erabaki hauek politiko eta epaileen esku gelditzen dira.
- Legeari intsumisioa egiten badiogu:

OHAR ETA DEIALDIAK

► POLONIAra bidaia antolatu du PAKE-LEKUK

Pake Leku elkarteak astebeteko bidaia antolatu du Poloniara. Ekainaren 30etik uztailaren 7ra izango da bidaia, baina izen-ematea martxoan egin behar da. Martxoaren 10ean jarriko dute egitarau osoa Pake-Lekuko arbelean, eta hilaren 17 eta 19an izango da izen-ematea, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Ekainaren 11a izango da ordaintzeko azken eguna.

► TENERIFERa ETXE AUNDI jatetxearen eskutik

Etxe Aundi jatetxeak 25. urteurrena ospatu du 2013an zehar eta, besteak beste, zozketa bat egin du (bi lagunentzako pentsio osoko astebeteko bidaia Tenerifera) iaz ezkontza Etxe Aundin ospatu zuten bikoteen artean. Otsailaren 28an egin zuen zozketa, Upaingo txakolin dastaketarekin batera, eta Nerea Mendiola-Gorka Otxotorena bikotearentzat izan da saria. Etxe Aundiko Marga Romarizen eskutik jaso zuten saria.



► Oñatiko Emakume Abertzaleen Batza omenduko du EAJ

Emakumearen eguna ospatzeko EAJ-PNVk omenaldia egingo dio Oñatiko Emakume Abertzaleen batzari, iraganeko emakume abertzale hauek emakumeen eskubideen alde egindako lanagatik. Martxoaren 7an izango da ekitaldia, batzokian, arratsaldeko 19:00etan. Ekitaldiaren hasieran EMAKUNDEko zuzendri Izaskun Landaidak emango du hitzaldia emakumearen inguruan.

bortizkeria kode penalaren forman etorriko zaigu, edota abortu klandestino gisa, gure osasuna eta bizitza arrisku larrian jarriko digularik.

- Emakumeok ama izatera behartzen gaituzte, hori baita beren ustetan emakumeok gizarte honetan bete behar dugun papera. Indarkeria sexista izanik, hartara behartzen gaituzte.

Informazio gehiago hemen: abortatzekoeskubidea.blogspot.com
Facebook: abortatzekoeskubidea

APIRILAK 5 DENOK IRUÑARA!!!

Euskal Herriko Mugimendu Feministak deituta, gure gorputzetan erabakiak guk hartzearen aldeko eta Gallardonon abortu lege erre-formaren aurkako manifestazio nazionala egingo da apirilaren 5ean Iruñan (17:30). Oñatitik autobusa jarriko dugu bertara joateko. Kolore guztietako feminismoak eta milaka herritar batuko gara aho batez lege honi ezezeko borobila emateko... eta ozen aldarrikatuko dugu: GURE GORPUTZA, GURE ERABAKIA!



Etxe-Aundik zerbitzurik onena eskaini nahi dizu:

- Ezkontzak
- Asteburuko menu bereziak
- Enpresen harrera ekitaldiak

www.etxeaundi.com

Etxe-Aundi
Hotela - Jantokia



CEUTA: TRAGEDIAK AURRERA DARRAI MEDITERRANEOAN

Urrian 389 etorkin hil ziren Lampedusa irla italiarretik gertu. Orain, otsailaren 6an, Saharaz hegoaldeko etorkin kopuru zehaztugabea hil da itota, Ceutara igerian iristeko ahaleginean. Astebete ondoren ere gorpuek agertzen jarraitu dute, 15 izateraino.

Mediterraneoan gertatutako tragedia honen aurrean, espainiar agintarien bertsio ofiziala, beste askotan bezala, ez da desberdina, kontrajarria baizik, bizirik irten eta irregularki Marokora bueltatu dituzten etorkinen lekukotasunekin alderatuz. Caminando Fronteras GKE ceutarrak jaso dituen testigantzek Guardia Zibila jotzen dute tragediaren erantzule, inolako zalantzarik gabe, uretan zeuden etorkin babesgabeen aurka gomazko pilotak, jaurtigairik gabeko munizioa eta gas negar-eragileak jaurti eta izua eragin zuelako. Bertsio ofizialean, hurrengo egunetan behin eta berriro zuzendua izan dena, Barne Ministerioak eta Guardia Zibilak ukatu egin zituzten gertaera horiek eta GKEen aurkako kereila-mehatxuak egin; onartzen dute istiluen aurkako materiala erabili izana, baina esaten dute “disuasio-neurri bezala erabili zela, inoiz ez pertsonen kontra, eta inola ere ez uretara tiro eginez”.

Arrazoiz, parlamentuko oposizioko alderdiek gezurretan



Joxe Ruiz



Europak inmigrazio politika murriztaileak aldatzen ez baditu, eta etorkinen sorterrien benetako garapena bultzatzen ez badu, tragedia berriak gertatuko dira, eta horrelakorik ezin dugu onartu

etorkinen sorterrien benetako garapena bultzatzen ez badu, tragedia berriak gertatuko dira, eta horrelakorik ezin dugu onartu.

aritzea aurpegiratu diete Jorge Fernandez Diaz barne ministroari eta Arsenio Fernandez Mesa Guardia Zibilaren zuzendariari. Gardentasunik gabe eta trabak jartzen aritzea leporatzen diete, eta exijitzen, hainbat GKE, giza eskubideen aldeko erakunde eta Europar Batzordearekin batera, ikerketa “zehatz, zorrotz eta independentea burutzea eta erantzukizunak argitzea”.

Herritarren samina hazten doan bitartean, eta Europak zigorrekin mehatxu egiten duen bitartean, Madrilen denbora pasatu nahian ari dira, ekaitza noiz baretuko, eta tragedia gertatu zen lekuko segurtasun kameren irudiak eskatu dituen Ceutako fiskaltza mareatzen. Gobernuak hartu duen erabaki bakarra da horma berehala luzatzea eta muga-postua berritzea. Eta ez dirudi Raxoik, Jorge eta Arsenio bere lagun estimatuak, baztertuko dituenik.

Zoritxarrez, Europak inmigrazio politika murriztaileak aldatzen ez baditu, pasabidea galaraztera mugatzen direnak, eta inplikatzeko ez bada gerrak, etnien arteko gatazkak eta giza eskubideen urraketak desagerrarazten, eta

ZER ETA ZERTAZ SINESTU

Joan den urtean, lagun batek ‘En qué creen los que no creen’ liburuxoa oparitu zidan. Umberto Eco idazle ezaguna eta Carlo Maria Martini, Milango Artzapezpikuaren arteko elkarrizketa bertan. Laikoa lehenengoa eta Eliza Katolikoko intelektuala bigarrena. Izenburua ez zitzaidan berehalakoan egokia iruditu. Betiko dikotomia: negatibotasuna eta positibotasuna, baietza eta ezetza, jantziak eta ez jantziak, osoak eta osabeharrekoak. Zergatik ez beste izenburu honekin hasi: ‘**Baten eta bestearen sinesmenak**’. Hau izan zen, orduan, irakurtzen hasi baino lehenagoko pentsamendua.

Liburua Umberto eta Carloren arteko komunikazio idatzia da, zortzi karten bidez. Baita ere, beste sei idazleren hausnarketak osatzen dute.

Irakurtzen joan ahala, eta neure etapa nahiko luzean pentsaera pertsonalaren hausnarketa kontutan hartuz, sinesmen eztabaida ondo bideratzeko, ‘**Zer eta zertaz sinestu**’ gaian oinarritu behar dela, garbi dut.

Zenbat aldiz, eta aspalditik gainera, galdera motz hau bota izan didate;

- Sinesten al duzu zuk, Bittor ?

Eta behin batez, bati honela erantzun nion:

- Nik? Bai. Beti gainera.

- Benetan? Orduan, lehengora bueltatu zara, ezta?

Jainkoan sinesten duzu berriro, ezta?



Bittor Madina



Transzendenziazirik gabeko giza baloreetan, jaiotzetik Naturak gugan sustraitu dizkigun eginbeharrekotan eta gizakiak heziketaren bidez landutako balore positiboetan sinisten dut

jaiotzetik Naturak gugan sustraitu dizkigun eginbeharrekotan eta gizakiak heziketaren bidez landutako balore positiboetan.
- Esan duzunarekin, ikusten dut sinesduna zarela!
- Jakina !!

Ba... asko pozten naiz.

- Hori bai dela galdera gordina eta potoloa. Baina, arazoa ez da lehengora bueltatu edo ez bueltatu. Ez da izan behar hasieratik horrela. Gainera, gehienetan, galdera horri nola erantzuten dion batek (baiezkoa edo ezezkoa), galdetzen duenak bestea sinestun edo sinesgabetzat joko du. Betiko dikotomia, beraz: bata, BAI da; bestea, EZ. Bata, normala; bestea, arraroa.

Begira! Saiatu behar gara **zer eta zertaz sinesten edota pentsatzen dugunarekin jardutea**. Eta esango dizut zergatik. Zuk sinesten dituzunetatik sinesmen batzuk nik beharbada ez ditut sinestuko, eta beste batzuk bai; eta nik sinesten ditudan batzuk zuk beharbada ez dituzu sinestuko, eta besteren batzuk, bai. Hemen dago kakoa, lagun. Beraz, biok sinestunak gara eta ezin zaio esan inori sinesgabea denik. Ez liburutan eta ezta elkarrizketetan.

- Ez dago gaizki planteamendu hori. Eta zertuk eta zertaz sinesten duzu zuk, Bittor ?

- Zutabe laburtxo honetan zaila zait azaltzea. **Funtsean hau eta apaltasunez esaten dizut: transzendenziazirik gabeko gizabaloreetan, jaiotzetik Naturak gugan sustraitu dizkigun eginbeharrekotan eta gizakiak heziketaren bidez landutako balore positiboetan.**

PARTIZIPAZIOA ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Aspaldi hontan askotan entzuten diren gaiak dira partizipazioa eta erabakitze eskubidea. Pasa den urtarrilean Oñatin plazaratutako Erabagiteko Eskubidiaren Aldeko Adierazpenak, "Euskal Herritarroi tokaiten xaku erabagi hori hartzea" dio (gutziz partekatzen dut adierazpen hau). Eskubideak zuzen erabili ahal izateko ordea, garrantzi erabakarridun aspektu bat hartu behar dugu kontutan: partizipazioa.

Jose Luis Madinagoitiak ederki adierazi zuen Otsaileko Kontzejupetik aldizkarian: partizipazio bide berriak ezarri beharra dago partizipazio maila indartzeko, bai enpresetan eta baita instituzioetan ere. Azken 18 urteotan Suitzako demokrazia zuzeneko modelo partizipatiboan bizi ondoren, Jose Luisek esanarekin bat egiten dut.

Nire ustez, partizipazioa eta, batez ere, partizipatzeko ohitura eta kultura dira oro har erabakitze eskubidearen erronka nagusietakoak. Urtean lau aldiz erabakitzen ditu Suitzako herriak

nazio, kantai eta herri mailako hainbat auzi. Ohitura honek enpresa mailan ere partizipazio eta konsensu kultura indartzen du. Partizipazioa eta erabakitze eskubidea (betebeharra kasik) Suitzako bizi giza-ekonomikoan sustaturik dago oso.

Arlo hontan, Euskal Herri iritsi zait desengainu galanta pasa den urtean, atez-ateko gatazkaren kontuak direla eta (atez-atekoa ona ala txarra den esatera ez naiz sartuko). Horrelako auzi bat guztioren partizipazioarekin erabakitze

gai ez bagara, nola lortuko dugu askoz konplexuaguak eta garrantzitsuagoak diren gatazkei buruz ezer erabakitzea?

Bihotzez espero dut Euskal Herriak noizbait erabakitze eskubidea lortuko duela, baina nire ustez ez genieke gai zailei itxaron behar partizipazio bideak gizarte mailan ezartzeko, eguneroko gaiekin hasi beharko genuke ohitura jorratzen. Eguneroko partizipazio ohiturarik gabe instrumento garrantzitsuenetako bat faltako zaigu eta.

Gorantziak irakurle gutzietatik.



Joseba Urzelai

ZIGOR SISTEMA EZBAIAN

Kartzela zigorrak, gure gizarteko muturreko zigor eredu bezala, badauka kontraesanik. Alde batetik, teorian, gizarteko arau batzuk apurtzen dituztenak "integratzeko" helburuarekin saltzen da instituzio hori. Praktikan, baina, kartzelak ez du ilegalitateen maiztasuna jaisten; areagotu egiten duela ere esan daiteke. Legea hautsi dutenei kriminal etiketa jartzen zaie eta ziegetan usteltzen dira. Boterean daudenei ez zaie interesatzen hortik aurrerako irakurketarik egitea. Ez da interesatzen, besteak beste, gizarteak azken urtetan izan duen osasun psikologikoaren gainbeheraren azterketarik egitea, edo pobrezia hazkuntza eta kausena, etab. Izan ere, faktore horiek ilegalitateekin erlazionatzen baditugu, hein batean sistemak berak sortzen dituela onartu beharko dugu; arriskutsua izan daiteke, gizarte eredu ezbaian jarri dezakeelako.

Bestalde, boterearen lana ez da ilegalitate guztiak eliminatzea, beraien kudeaketa "arrazional" bat egitea baino. Honela, kartzela sistemak ilegalitate mota konkretu bat azaleratzea du helburua: klase baxuenarena. Hilketak, bortxaketak, lapurretak, notizia guztietan daude presente momentu oro. Jendeak ikusi egin behar du legea hausten



Aimar Uribesalga



Boterearen lana ez da ilegalitate guztiak eliminatzea, beraien kudeaketa "arrazional" bat egitea baino.

duenak poliziak aurkitu eta zigorra ezartzen zaiela, hots, zigor sistema, sistema judiziala, poliziaren paper positiboa gure onurarako direla. Baina sektore konkretu baten ilegalitateak zigortzean eta erakustean, beste hainbat ilegalitate ezkututzen dira, hala nola klase altuarenak. Batzuk erakutsi, beste batzuk ezkutatzeko. Eta horregatik komeni da klase baxuaren delinkuentzia bizirik mantentzea, beti ere boterearen ikuspegitik, kontrolpean mantendu daitekeelako, herritarren gehiengoarekin sinpatia erlaziorik ez duelako (ez dira boterea ezbaian jartzen duten jarduerak), atentzio desbideratzeko balio duelako, etab. Armen trafikoa eta drogena dira adibide bikainak: beraien gain presio egiten da, baina ez haiei bizia kentzeko bezainbestean. Bide batez, ez da kasualitatea proportzioan preso gehien dituen herrialdea Estatu Batuak izatea.

Edo behintzat, hori guztia zioen Michel Foucault soziologo frantsesak "Vigilar y castigar" liburuan. Martxoaren 12an, asteazkena, arratsaldeko 18:30ean, Kultur Etxeko goiko gelan liburu horren zati batzuk irakurri eta aztertzeko Ikas-tailer bat egingo da, gaian sakontzeko. Zigor sistema aztertu gabe, bizi garen gizarte ulertu ezin delako. Guztiok zaudete gonbidatuta.

HARITZA

- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotoa
- Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfnoa: 78 23 96




MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50

■ IÑIGO ELOSEGI / GIPUZKOAKO URAK kortsortzioko zuzendari nagusia

“Uraren tarifakazio berria askoz ere justuagoa da; gehien kontsumitzen duenak gehiago ordaintzen du, eta ur gehiago aurrezten duenak onurak lortzen ditu”

GIPUZKOAKO URAK-ek etxeko ur kontsumoa tarifikatzeke sistema berria jarri du abian. Kontsumitutako ur kopurua ez ezik, etxebizitza bakoitzean erroldatuta dagoen bizilagun kopurua ere hartuko da kontuan aurrerantzean. Sistema zuzenagoa eta justuagoa dela esan digu Iñigo Elosegik, Ur Kortsortzioko zuzendariak; uraren tarifa pertsona bakoitzaren kontsumoaren arabekoa izatea bultzatzen ari gara.



Ze arrazoiengatik proposatu du Gipuzkoako URAK-ek uraren tarifiari erroldatutako pertsonen kopurua ere kontutan izatea?

Hornidurako kudeatzaile asko dira hornidurako zerbitzuaren prezioa modu zertxobait zaharkituan erreferentziatzen jarraitzen dutenak, kontsumoko minimoekin, etab. Honek ez dio batere mesederik egiten aurrezkiari eta uraren zentzuzko erabilerrari eta uraren kostuen gizarite eta ekonomi justiziarri.

Aurreko aspektuak sustatu asmoz, jada urte batzuk, Gipuzkoako Ur Kortsortzioko mailakako tarifa aplikatzen ari da; hau da, unitateko kostua gehitzen doa abonatuaren kontsumoaren arabera.

Une honetan, beste urrats bat eman nahi izan dugu, uraren aurrezki, zentzuzko erabilera eta ingurugiro-arekiko errespetua, ahal bada, gehiago sustatu asmoz; ildo horretan, ordaindu behar den azkeneko prezioarekin orekatuagoak izatearren, prezioa pertsona bakoitzaren kontsumoaren arabera lotzen bultzatzen ari gara.

Pertsona baten batz besteko kontsumoa hiruhileko 10m³ da; batz besteko horren inguruan dauden guztiek ez dute inolako aldaketarik igarriko beraien fakturan

Modu berri hau, gainera, zuzenagoa da. Pertsona gehien erroldatuta dauden etxebizitzetan mesedegarri baita, eta bakarrik edo beste batekin bizi diren pertsonen kontsumoa (batz beste-koaren gainetik daudenak) gutxitzen laguntzen baitu.

Ohikoa al da tarifakazio mota hau Uraren kudeaketaz arduratzen diren erakundeetan?

Ez, ez da ohikoa, baina APLIKATZEA

GUZTIEI GUSTATUKO LITZAIKE. Uraren kudeatzaile denek edo gehiengoak ez aplikatzearen arrazoia da, fakturazio eredu honek ezartzeko duen zailtasun teknikoa.

Zein onura ikusten dizkiozue tarifakazio berriari?

Lehen esan dugun bezela, justuagoa da zeren bakoitzak bere kontsumo unitarioaren arabera ordaindu beharko du, eta honek batez bestekoa baino gehiago gastatzen duten pertsonen kontsumoa gutxitzen laguntzen du.

Gipuzkoako URAK-ek fakturazioa handitzea ekarriko al du neurri honek?

Ez, gure diru-sarrerak ez dira aldatuko tarifakazio mota hau ezarrita, abonatu batzuk gutxiago ordainduko dute (batez bestekoa baino gutxiago kontsumitzen dutenak) eta beste batzuk gehiago.

Orain artean kontsumo ertaina mantendu duten familiek (10 m³ pertsonako) igarriko al dute aldaketarik? Pertsona baten batez besteko

BELLIDO **elekttrizitatea**

- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoaren konponketak

Jose Moyua kalea 16, behea • Tel./Fax: 943 78 23 10
Mug. 615 74 94 94 • 20560 OÑATI

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

Familia unitateko pertsona kopurua	Bataz besteko kontsumoa hiruhileko (M3)	Tarifikazio zaharrean hiruhileko	Tarifikazio berrian hiruhileko	Garestitze/merketzea %-tan	Diferentzia dirutan hiruhileko
1	15	31,57	32,66	+3,45	+1,09 EUR
2	20	37,60	37,78	+0,47	+0,18 EUR
3	30	49,66	49,84	+0,36	+0,18 EUR
4	40	63,53	61,90	-2,56	-1,63 EUR
5	50	77,40	73,96	-4,44	-3,44 EUR
6	60	91,27	86,02	-5,75	-5,25 EUR
7	70	105,14	98,08	-6,71	-7,06 EUR

kontsumoa hiruhileko 10 m³ da. Batez besteko horren inguruan dauden guztiek EZ dute beraien fakturan inongo aldaketarik igarriko.

Hala ere, suposatuz dezagun etxe biritza batetan 3 pertsona daudela eta beraien kontsumoa 10 m³ dela pertsona/hiruhileko; hau da, 30 m³ guztira.

Tarifikazio berriarekin, 49,84 € ordainduko lituzke.

Alderantziz, kontsumoa batez bestekoa baino %33 handiagoa bada, hau da 13 m³ biztanleko edo 40 m³ hiruhileko, 63,71 € ordainduko lituzke, aldiz 4 pertsona izango balira, kontsumo hori bera egiten dutenak, ordaindu beharrekoa 61,90 € izango litzateke, hau da, unitateko prezioa %3an gehitu da.

Honekin esan nahi dugu, sistema justuagoa dela eta berekin ez dakarrela neurrigabeko alderik (%3), kasu honetan, batez besteko baino %30 gehiago kontsumitzen dutenentzat.

Lehenago tarifakazioa baino justuagoa dela uste al duzu?

Gure iritziz, tarifakazio hau askoz ere justuagoa da, gehien kontsumitzen dutenak gehiago ordaintzen dute eta ur gehiago aurrezten dutenak onura lortzen dute.

Herri Eskolako Kontserjearen etxea errentan emateko deialdia egin du Udalak

Errekalde Herri Eskolako 'Kontserjearena' deituriko etxea errentan emateko deialdi irekia egin du Udalak. Etxebizitza horrek ez du hileroko errentarik izaten dirutan. Horren ordez, etxebizitzako maizterrak hainbat lan egin behar ditu ikastetxeo eraikinean. Horregatik, lan horiek egiteko formazioa eta esperientzia hartuko dira kontuan etxea nori eman erabakitzeke. Baldintzen artean, Oñatin urtebete lehenagotik erroldatuta egotea eskatzen da, eta euskara ulertu eta hitz egiteko gai izatea (1. Hizkuntz Eskakizun mailaren parekoa). Deialdia Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratu ondoren 20 eguneko epea egongo da eskaerak aurkezteko udal bulegoetan. Deialdia aratuko duen baldintza zerrenda osoa udal bulegoetan edo www.oinati.eu webgunean eskura daiteke.

Ludoteka ibiltaria jarriko da abian martxoan

Ludoteka zerbitzua ezagutzera emateko asmoz, ludoteka ibiltaria zerbitzua jarriko da abian hil honetan. Hala, martxoko lau zapatuetan jarduera ezberdinak antolatuko dituzte Olakuako dorre inguruan; euria egiten badu, dorre barruan. Hilaren 8an 'Musika sortuz' izeneko ekintza burutuko da; hurrengo asteetan berriz, 'Zirko tailerra', 'Herri kirolak' eta 'Jostailuak sortzeko tailerrak'. Ludoteka ibiltariak bi orduko iraupena izango du (11:30-13:30), eta bertara hurbiltzen diren 3 eta 10 urte arteko haur guztiek parte hartu ahal izango dute.

Elkartasun mezuak

Urtarrileko osoko bilkuraren amaieran EAJk elkartasuna adierazi zion Josu Lizarralde zinegotziari goardia zibilarengandik jasan duen presioagatik. Era berean, alkateak elkartasuna adierazi zion gobernu taldearen izenean Lourdes Idoigari, bere aurka agertu diren kartelengatik. Jarrera horiek erabat baztertzeko dituztela, eta elkarbizitza klabean kokatu behar dugula esan zuen alkateak.



EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA | TEL/ FAXA: 943 78 14 59
20560 OÑATI (GIPUZKOA) | limabar@euskaltel.net

www.egur-lan.es



smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

San Martingo Plan Partziala aldatzea onartu du Udalak

► Etxebizitza gehiago eraikiko dituzte, baina txikiagoak, eta prezio mugatua izango dute ► Urbanizazio publikoa amaitzeko baldintza ezarri die Udalak enpresei

San Martin guneko Plan Partziala aldatzeko hitzarmena onartu du udalbatzak, Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz. Konkretuki, eraiki gabe dauden bost partzela libre-etako jabeekin (Sanmartinberri S.L., Mojasoro S.L. eta Sanmartinaldea S.L.) sinatu du hitzarmena.

2006an onartu zen San Martin gunea garatzeko Plan Partziala, eta hitzarmen haren arabera, babes ofizialeko 196 etxebizitza eta tasatutako 11 eraiki dituzte bertan. Horiez gain, merkatu libreko 99 etxebizitza eraikitzeko aukera jasotzen zen, sei etxe-bloketan banatuta, baina horietatik bloke bakarra (16 etxebizitza) eraiki da, eta beste baten egitura.

2006koplanaren arabera, merkatu libreko etxe hauen batz besteko azalera 145m²-koa zen, eta, jakina, gaur egungo egoeran, etxe horiek bideraezinak direnez, urbanizazioa gelditi dago.

49 ETXE GEHIAGO

Horren aurrean, partzela horien jabe diren enpresek etxebizitzaren tipologia eta kopurua aldatzea eskatu dute; hau da, eraikitzeko geratzen diren 83 etxeen ordez, 132 eraiki ahal izatea, baina txikiagoak (145m²-koak izan beharrean, 85 m² ingurukoak); hau da, eraiki-garritasun osoa (12.195m²) aldatu barik.

Udalak onartu egin du eskaera, baina baldintza batzuekin, besteak beste prezioari dagokionez. Hala, San Martin gunean eraikiko diren etxe libreek salneurri mugatua izango dute (babes ofizialeko etxebizitzaren salneurria 1,7 aldiz handituta.



Eraikitzeko falta diren 83 etxe libreen ordez 132 eraikiko dituzte, baina txikiagoak (85m² inguru) eta prezio mugatukoak (220 mila euro inguru)

Gainera, Plan Partzialaren aldaketa behin betiko onartu aurretik, sustatzaileek ekintza programa aurkeztu beharko dute, urbanizazio publikoa amaitzeko epeak zehaztuz. Eta, konkretuki,

egitura jasota dagoen A4 partzelako eraikinaren fatxada urtebeteko epean amaituta egon beharko da.

Mikel Biain alkateak esan du ahalegin bat egin nahi izan dutela San Martingo

poligonoari irtenbide bat emateko, eta adostutako hitzarmen berria ona dela, San Martingo urbanizazioa amaitu egingo delako eta, gainera, gaur egungo errealitate sozio-ekonomikoaren neurriko etxeak jarriko direlako merkatuan.

EAJ AURKA

EAJk hitzarmenaren aurkako botoa eman zuen. Lourdes Idoiak esan zuen legitimoa ikusten dutela konstruktoreek egindako planteamendua, baina lurzorua legea aplikatuz etxebizitzaren %65 babestutakoak izan behar dira; beraz, San Martinen 49 etxe gehiago eraikiko direnez, 32 babes ofizialekoak izan beharko liriateke EAJren ustez, eta gainerakoak prezio mugatukoak. "Bilduk sinatu duen hitzarmenaren arabera, San Martinen eraikiko diren 132 etxebizitzek 220 mila euro inguruko prezioa izango dute (BOE x1,7), eta gure proposamenaren arabera berriz, babes ofizialeko 32 etxeen prezioa 130 mila eurokoa izango zen; hau da, 2,9 milioi euroko aurrezki soziala lortuko litzateke".

Alkateak esan zuen EAJren proposamenak 100 etxe merkatu librearen esku uzten dituela, eta hobe dela etxe guztien prezioa mugatzea.

Ingurumen arloko ekintzak diruz laguntzeko deialdia

2014an zehar Oñatiko udalerraren eremuan ingurumenaren aldeko ekintzak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko taldeei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Heziketa, informazioa, ezagutza eta sentsibilizazioa lantzeko jarduerak, eta ingurumena babestu eta berreskuratzea zuzendutako proiektuetara zuzendutako dirulaguntzak dira. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera 30 egun naturaleko epea egongo da eskaerak aurkezteko. Aurten 15.000 euroko diru-atala bereiztu du Udalak era honetako egitasmoei laguntzeko.

Udalaren aholkularitza juridikoa kontratatzeko lizitazioari hasiera eman dio Udalak

Lege aholkularitza zerbitzua kontratatzeko baldintza zerrenda onartu eta lizitazioa hasiera erabaki du udal gobernu taldeak. Hauek izango dira bere egitekoak: udalaren idazkaritza orokorrari laguntza ematea, eskatutako txosten eta irizpen juridikoak egitea, eta administrazioarekiko auzi-prozesuetan defentsa juridikoa egitea, besteak beste. Aholkulari zerbitzua astean goiz batean udaletxean egon beharko da. Udalak prozedura negoziatu bidez esleituko du aipatutako zerbitzua, prezioa eta txosten teknikoak baloratuz. Bi urterako kontratua egingo da, beste bi urtez luzatu ahal izango dena.

ATEZ ATEKOA: ZALANTZAK ARGITZEN

Bidali zure zalantza edo galdera helbide honetara: kontzejupetik@oinati.net

► EHUNKIEN BILKETA: JANTZIAK, OIHALAK, OINETAKOAK, TRAPUAK...

-Zer biltzen da? Jantziak, oinetakoak, zinturoiak, trapuak, oihalak, maindire eta mantak (zaharkituta egon arren).

-Nola atera? Plastikozko poltsetan sartuta.

-Non? Olakua auzoko plazan, Errementari plazan eta Errekalden dauden edukiontzi zurietan.

-Zer egiten da bildutako arroparekin?

a) BERRERABIL: baliabiderik gabeko gure inguruko talde sozialen artean banatu edo bidezko merkataritzako dendetara joaten da.

b) BIRZIKLATU: berrerabili ezin daitezkeen arropa, trapu eta oihalak birziklapen-enpresetara bidaltzen dira, betegarriak, material isolatzaileak eta antzerako produktuak gabrikatzeko.



► LORONTZIETAKO LURRA NORA ATERA?

Errefusara bota behar da

ORDUTEGI BERRIA HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INFORMAZIO BULEGOAN

Kale Zaharreko 14an dagoen atez atekoaren inguruko informazio bulegoak ordutegi berria izango du martxotik aurrera:

► Astelehen eta asteazkenak: 10:00-14:00 / 15:00-19:00

► Astearte, ostegun eta ostiralak: 10:00-14:00.

Hala ere, edozein zalantza edo arazo izanez gero, ondorengo telefono eta posta elektronikoko bidez jar zaitezke harremanetan: 943 25 01 45 / atezate@debagoiena.com

► APURTUTAKO ATERKIAK NORA ATERA?

Garbigunean edo Garbigune Ibiltarian utzi behar dira (metalezko hagatxoak eta egurrezko edo plastiko gogorreko heldulekua dutelako).

► GARBIGUNE IBILTARIA

Garbigune Ibiltaria martxoaren 5 eta 20an egongo da Oñatin, plazako azokaren atzealdeko biribilgunean (10:30-21:00)

Auzoetako bide nagusien inbentarioa egin du Udalak

- Jabego nahiz erabilera aldetik publikoak diren bideak jaso dira bertan
- Santa Ana aretoko sarreran dago ikusgai dokumentua martxoaren 10era arte.

Herriko landa-bide nagusien inbentarioa egin du Udalak, jakiteko zein bide diren jabetza edo erabilera publikokoak, eta zein pribatuak. Hartara, auzoetako bideetan egin beharreko inbertsioak (bide konponketak...) eta eman beharreko zerbitzuak (elurra kentzea, belarraz moztea, arekak garbitzea...) erabilera publikoa edo jabego publikoa frogatua duten bideetara mugatu ahal izango du Udalak.

Horrez gain, Udalak arautu egin ahal izango du bide publikoen erabilera. Konkrétuki, landa-bideak kaltetu edo hondatzen dituzten erabilerak (motorrak, quad-ak, egur, pentsu edo lastoaren garraioan ibiltzen diren tonelaje handiko kamioiak...) arautu nahi ditu udalak.

SENDO ingeniariaritzaren enpresa bizkaitarrak egin du Oñatiko landa-bideen inbentarioa. Katastroak, kartografiak eta artxiboetako agiriak erabili dituzte auzo bideen izaera definitzeko. Asfaltatutako edo hormigoitutako bideak bakarrik aztertu dira eta, guztira, 70 kilometro bide inbentariatu dira publiko bezala. Hurrengo fase baterako utzi dituzte bigarren



Egunero (09:00-20:00) dago zabalik erakusketa

mailako bideak (baso bideak, galtzadak, galdi bideak...).

Udalak auzo-alkateen foroan aztertu zuen aurrena Sendo enpresak egindako lana, eta orain, interesatuta egon daitezkeen herritar guztiarekin kontrastatu nahi izan du, oker egon daitezkeen datuak zuzentzeko, dokumentua osoko bilkuran onartu aurretik. Horretarako erakusketa bat prestatu du Udalak Santa Ana aretoko sarreran. Bi plano handitan daude adierazita kolore ezberdinez publiko edo pribatu bezala katalogatutako bideak, eta inbentarioan jasotako bideen fitxak ere kontsulta daitezke, publiko delako esateko aurkitutako arrazoiekin.



Ekintzailetasuna sustatzeko lau bulego berri egokitu ditu Udalak Olaburun

► Enpresa ekimen berriei laguntzeko 10 bulego eta 7 tailer ditu orain Udalak Zubillagako enplegu zentroan

Ekintzailetasuna eta autoenplegua sustatzea da krisiari aurre egiteko moduetako bat Helburu horrekin Udalak 85.000 euro inbertitu ditu Zubillagako Olaburu zentroan, lau bulego berri egokitzeko, enpresas ekimen berrien sustatzaileek erabili ahal izan ditzaten.

Azken urteotan Udalaren laguntza eskatzen duten enpresa ekimen gehienak zerbitzu arlokoak izaten dira, eta ez hainbeste industria arlokoak. Beraz, eskari horri erantzuteko asmoz, Olaburun hutsik zegoen 119m²-ko tailer industrial bat egokitu eta lau bulego prestatu dituzte (16m²-koa txikiena eta 44m²-koa handiena), Izaskun Legaristi arkitektoak egindako proiektuaren arabera.

Lau bulego hauek moldagarriak dira; hau da, ekintzaileen espazio beharretara egokitu ahal izango dira. Eta, esan bezala, zerbitzu arloko enpresa ekimen berriak sustatzeko erabiliko dira.

Horrenbestez, lau bulego hauek kontuan hartuz, gaur egun zerbitzu arloko ekimenetarako 10 bulego eta jarduera industrialetarako 7 tailer ditu Udalak Olaburuko enpresa mintegian;

10 bulego horietatik 8 adjudikatuta daude, eta 7 tailerretatik 6 ere errentan utziak ditu Udalak une honetan.

BOST URTERAKO LAGAPENA

Enpresa ekimen berri bat duen edozein pertsonak eska dezake Olaburuko

bulego edo tailer hauetakoren bat erabiltzeko aukera. Baldintza bakarra da, enpresaren hasierako plantilla hamar lagunetik beherakoa izatea, eta kapital soziala 120.000 eurotik beherakoa.

Lagapen kontratua urtez urte berrituko da eta, gehienez, bost urtera

Azken urteotan zerbitzu arlokoak dira enpresa ekimen gehienak. Beraz, hutsik zegoen tailer industrial bat egokitu eta lau bulego berri prestatu dituzte ekintzaileei lagatzeko

MODULUEN ALOKAIURU PREZIOAK		
URTEA	INDUSTRIA MODULUA (m ² -ko eta hileko)	ZERBITZU MODULUA (m ² -ko eta hileko)
1	0,83 €	1,03 €
2	2,47 €	2,97 €
3	4,75 €	5,71 €
4	6,74 €	8,07 €
5	7,36 €	8,81 €

arte luzatu ahal izango da. Hirugarren urtetik aurrera, luzapenak lokalen disponibilitatera baldintzatuta egongo dira. Hau da, beste sustatzaile batek eskaera egiten badu eta beste lokal aukerarik egon ezean, laugarren edo bosgarren urtean dagoenak utzi egin beharko du lokala, hiru hilabeteko epean. Lokalen alokairu prezioa merkatu librekoena baino dezente merkeagoa da (ikus taula).

Zenbait kasutan, enpresaren aktibitatea hasi aurretik ere, ekintzaileek bulegoa edo tailerra behar izaten dute, produktuen prototipoak egiteko, edo zerbitzu bat merkatuan testatzeko, besteak beste. Halako kasuetan, Udalak 'SAIATU' izeneko programa dauka, eta aldi baterako (gehenez urtebete) lokal lagapenak egiten ditu, alokairu prezio sinboliko batekin (10€/hileko).

LAGUNTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOAK

Lokal eta tailerren lagapena egiteaz gain, udal Sozio-ekonomia departamentuak laguntza tekniko eta ekonomiko ere ematen du enpresa berrien sorrera sustatzeko. Alde batetik, enplegu teknikariaren bidez tutoretza zerbitzua eskaintzen du, enpresaren bideragarritasun plana egiten laguntzeko (finantza plana, forma juridikoa, enpresa eratzeko tramiteak...)

Horrez gain, 300 eta 900 euro arteko beka bat ematen du Udalak, bideragarritasun azterlana egiten laguntzeko, eta enpresa eratu ondoren, sortutako lanpostu berri bakoitzeko 1.000 euro ematen ditu Udalak, lehenengo hiru urteetan. Lehen sektoreko aktibitatea bada, 3.000 eurokoa da alta ematen den langile bakoitzeko dirulaguntza.

Laguntza hauei buruzko informazio gehiago udal Sozioekonomia departamentuan (Bidebarrieta 12, behe).

FORMAZIO IKASTAROAK

Udal Sozioekonomia departamentuak antolatuta, merkataritza arlora zuzendutako hiru ikastaro egingo dira martxo eta maiatza artean. Orokorrean, langabetuei zuzenduta daude, baina 'Jakien erabilera' (Manipulación de alimentos) ikastaroan janariekin loturiko aktibitateetan lanean ari direnek ere parte har dezakete. Ikastaroak doan dira.

Izen emate epea zabalik egongo da martxoaren 18ra arte. Interesatuak udaleko Enplegu zerbitzuan (Bidebarrieta 12 - 943037700) eman dezakete izena. Plazak mugatuak dira. Ikastaroak Zubillagako Olaburu zentroan egingo dira, Elkolab enpresaren eskutik.

■ 'JAKIEN ERABILERA'

Egunak: Martxoan 20, osteguna goizeko 9:30etatik 13:30ak arte.

Helburuak: Elikagaiak higiene segurtasunez eta kalitatez nola manipulatu behar diren landuko da. Langabetuei ez ezik, manipulatzaile agiria behar duten langileei ere zuzenduta dago ikastaroa. (20 plaza)

■ 'SALMENTA TEKNIKAK ETA BEZEROEI ARRETA'

Egunak: Martxoak 24, 25, 31 eta apirilak 2, arratsaldeko 14:00etatik 17:00etara.

Helburuak: Partaideen salmentarako ahalmena hobetzea, bezeroarekiko arreta eta honen satisfakzioa zuzenduta betiere. Komunikazio egokia, enpatia, asertibitatea, kexak, erreklamazioak edota telefono bidezko arreta landuko dira, besteak beste. (15 plaza)

■ 'MERCHANDAISING'

Egunak: Maiatzak 12, 14, 19 eta 21, arratsaldeko 14:00etatik 17:00etara.

Helburuak: Atentziora eman eta bezeroa produktu jakin batzuetara bideratzea, komertzioaren salmentak hobetu eta errazteko helburuarekin. Merchandaising-aren ideiak eta salmenta sistemak landuko dira, besteak beste. (15 plaza)

Ikastaro gehiago: 'Edadetuen zaintza' eta 'Ofimatika'

Goian aipatutako hiru ikastaroez gain, pertsona edadetuen zaintzarekin lotutako formazio ikastaroa antolatuko du Udalak. Gogoratu laister indarrean sartuko den araudiaren arabera, beharrezkoa izango dela profesionaltasun ziurtagiria edadeko pertsonen zaintza arloan lan egiteko. Bestalde, Ikas Hiru akademiarekin elkarlanean, langabetuei zuzendutako Ofimatikako (Word, Excell, Access...) antolatuko du Udalak, apiriletik aurrera.

EAJren salaketari erantzunez

Krisiaren aurkako planik ez edukitzea eta atez-atekoari lehenetasuna ematea leporatuz Debagoineko EAJk pasa den hilean kaleratutako prentsa oharri erantzunez, zera adierazi du Oñatiko Bilduren udal taldeak: iaz (2013) herritarrek aurkeztutako 24 enpresa proiektu aztertu eta horietatik 16 sortzeko bitartekoak jarri zirela, 17 lanpostu sortuz. Aurreko agintaldi osoan (EAJ agintean zela) 37 enpresa proiektu aztertu zirela dio Bilduk, eta oraingo agintaldian 69 aztertu dira, jada, bi urte eta erdian.

Aurrera irten diren enpresei dagokienez berriz, aurreko agintaldian 26 enpresa sortu ziren, eta oraingoan jada 39 sortu dira. Sortutako lanpostuei dagokienez berriz, aurreko lau-urtekoan 23 sortu ziren, eta oraingoan dagoeneko 39, Bilduk emandako datuen arabera betiere.

Debagoieneko EAJk egindako salaketa gezurtatu, eta argi utzi nahi izan du Oñatiko Bilduk bere plangintzaren helburua pertsonak direla, eta hauen laneratzea. Arlo honetan egiten ari diren esfortzu ekonomiko eta humanoa iraganean baino handiagoa dela gaineratu du; aurreko agintaldian 43.100 euro bideratu ziren pertsonen enplegarritasuna sustatzera, eta Bildu agintean dagoen denboran 76.800 euro bideratu dira.

EAJren oharra

Oñatiko EAJk argi utzi nahi izan du berak ez duela Bilduren enplegu politikaren inguruko inolako salaketarik egin. Bide batez, gogoratu dute jeltzaleek, aurreko agintaldian (2007-2011) krisiaren ondorioei aurre egitea izan zela lehenetasuna. Ildo horretan, autoenplegua sustatzeaz haratago, Udalak 74 langabetu kontratatatu zituen, 443.000 euro inbertituz, eta 579 pertsonari eman zitzaizen lanerako formazioa, 67.000 euro inbertituz. Orotara, milioi bat eta hamaika mila euroko kostua izan zuen udal gobernuak krisiari aurre egiteko abian jarri zuen Enplegu Planak. Jeltzaleak agintean egon diren gobernu aldietan beti pertsonak lehenetsi dituztela argi utzi nahi du Oñatiko EAJk.

TRATU TXARREN AURKAKO GIDA kaleratu du Udalak

Udaleko Berdintasun sailak emakumeenganako tratu txarren aurkako gida argitaratu du, hogei orrialdekoa, informazio praktikoa eta interesgarria emanez, argi eta labur.

Tratu txarrak aurreikusi eta detektatzeko lagungarri diren adierazle edo seinaleak ematen ditu gidak, eta halako egoera baten aurrean zer egin eta nora jo daitekeen ere azaltzen du.

‘Zalantzak argitzen’ izeneko atalak hartzen du gidako zatirik handiena. ‘Nora jo behar dut salaketa bat jartzera?’; ‘Salatu al dezaket nire bikotea ezkongabe egonda?’; ‘Atzerritarra banaiz egoitza-baimena galduko al dut salaketa jarritz gero?’; ‘Dirurik ez badaukat, zer egin dezaket?’; ‘Zer da babes agindu bat? Eta nork eska dezake?’. Era honetako hainbat galdera eta zalantza argitzen ditu gidak. Azkenik, tratu txarren biktima diren emakumeek erabiltzeko hainbat telefono zenbaki dakar gidak.

“Bereziki zaindu edo mimatu dugun lana da, eta espero dugu baliagarria izatea tratu txarrak nozitzen dituzten pertsonentzat” azaldu digu Maialen Urzelai udaleko Berdintasun batzordeko burua.

Lau hizkuntzetan argitaratu da gida (euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez) Oñatin bizi diren jatorri ugari herriarrentzat erabilgarria izan dadin. Herriko hainbat leku estrategikotara jarriko da gida herritar guztien eskura: udal bulego eta zerbitzu ezberdinetan, osasun zentroan eta botiketan, besteak beste.



MAIALEN URZELAI

Berdintasun batzordeko burua

Bereziki zaindu dugun lana da eta espero dugu baliagarria izatea tratu txarrak nozitzen dituzten emakumeentzat



Euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez argitaratu da gida

Udalak dirulaguntza emango die banandu edo alargundu ondoren umeen kargu egiteko baliabiderik ez duten emakumeei

Edozein arrazoiengatik (banaketa, dibortzioa, alarguntzea...) beraien bizikidetzaren unitatea hautsi eta seme-alaben kargu egiteko nahikoa baliabide ez duten emakumeei zuzeneko dirulaguntza emateko araudia onartu du udalbatzak.

Udalak eskatzaile bakoitzaren egoera aztertuko du eta, gehien jota, dagokion Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren lau hileko zenbatekoaren pareko laguntza jasoko du onuradun bakoitzak.

Diru hori eguneroko gastu arruntak ordaintzen laguntzeko izango da eta, kasu bakoitzaren arabera, Udalarari itzuli beharrekoa edo itzuli beharrik gabekoa izango da.

Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko baldintza da, Oñatin erroldatuta egotea eta bertan bizitzea aurreko 12 hilabeteetan, gutxienez. Eskaerak udal Berdintasun sailean tramitatu beharko dira (Bidebarrieta 12, behea).

Udalak onartu duen dirulaguntza berri hau aitzindaria da, eta diskriminazio positiboko neurri bezala ulertu behar da, krisi garai honetan, bereziki, zenbait emakumek bizi duten bazterkeria arriskua prebenitzeko asmoz. Krisi ekonomikoak askoz ere eragin handiagoa du emakumeengan, eta ondorioz emakumeen gizonekiko mendekotasun ekonomikoa areagotu egin da. Eta mendekotasun hori larriagotu eginen da ezkontza-banatzeko kasuetan, egoera ekonomikoa erabakitzeke ebatzen judizialak iritsi arte hiru edo lau hilabete pasatzen direlako. Eta hain zuzen ere, egoera horietan laguntzeko emango ditu udalak dirulaguntza hauek.

Oñatiko herria generoaren ikuspuntutik aztertzeko bigarren tailerra martxoaren 31n

Udalak herriko hainbat eragilerekin batera 2012an egin zuen Berdintasun Planak jaso zuen, besteak beste, herriko eredu urbanistikoa genero ikuspuntutik aztertzeko premia, eta horretan dihardute abenduaz geroztik, FARAPI elkartearen laguntzarekin.

Oñatiko herria emakumeen begi eta beharretatik aztertu (segurtasuna, mugikortasuna, irisgarritasuna, adierazpen sinbolikoa...) eta hobekuntzarako aldaketak proposatzea da helburua.

Orain arte, Farapi elkarteak herriko elkarte ezberdinekin bildu dira, hauen ikuspuntua jasotzeko, eta urtarrilaren 3an lehen tailerra egin zuten denak batera, ikuspuntu guztiak mahai gainean jarri eta eztabaidatzeko. Hogeia lagun elkartu ziren, adin eta pentsakera ezberdinekoak.

Hurrengo tailerra martxoaren 31n izango da, Bidebarrieta 12ko lokalean (18:00). Oñatiko berdintasunaren mapa egitea izango da bilera honetako helburua. Beraz, dei egiten zaie herritar guztiei tailerlean parte hartzera.

MARTXOA emakumeen hilabetea. Batu feminismora!

martxoak 7

▶ 17:00 SEXU INFORMAZIO BULEGOAREN inaugurazioa Gaztelekuan

martxoak 8

▶ 19:00 'EMAKUME PROTAGONISTAK' bakarriketa saioa Ixabel Agirresarobe aktorearen eskutik. Gaztelekuan,



martxoak 12

▶ 18:15 'ABORTOAREN LEGE BERRIA. EMAKUMEON ESKUBIDEEN HONDAMENA' izenburuko hitzaldia, Begoña Zabalaren (abokatu feminista eta sindikalista) eskutik. Bidebarrieta 18-ko lokalean.

martxoak 14

▶ 'HIZKUNTZA ETA IRUDI EZ SEXISTAREN ERABILPENA' ikastaroa udal langileentzat. Martxoaren 21ean bigarren saioa egingo da.

martxoak 16

▶ 19:30 ANTZERKIA. Emakumeenganako tratu txar emozionalen inguruko hausnarketa egiten duen 'HITZAK' antzezlan, Hika taldearen eskutik. Agurtzane Intxaurre eta Maite Iturbek idatzitako istorioa



martxoak 18

▶ 18:00 Hitzaldia: 'BULARREKO MINBIZIA' Katxalin elkartearen eskutik, Santa Anan



martxoak 25



▶ 18:30 LAURA MINTEGIREkin solasean, maitemintzeari buruzko 'Sisifo maite menez' nobela-saiakera ardatz hartuta. Kutur etxean, bertako Tertulixan irakurketa klubaren ekimenez.

martxoak 31

▶ 18:00 'HIRIGINTZA ETA GENEROA' tailerra, FARAPI elkarteak gidatuta, Bidebarrieta 18ko gelan

Oñatiko Sare Feministaren egitaraua

MARTXOAK 6

20:00 ZINE KLUBA, kultur etxean: 'GLORIA' filma. Zuzendaria: Sebastian Lelio (Chile, 2012)

MARTXOAK 7

18:00 'ZERTXINTXIKAK' lasterketa hrerikoia herriko plazan. 2,5 km., denok batera, eritmo lasaian. Animo!



MARTXOAK 8

12:00 Elkarretaratzea herriko plazan: 'EMAKUMEON BORROKA ETA ELKARTASUN EGUNA'

12:30 Triki-Poteo KALEJIRA herrian zehar

14:30 Txantxiku Emakumeon BAZKARIA Gaztetxean. Bazkal ostean umore ona, musika feminista eta dantza. (Bazkarirako txartelak salgai Oñati, Arrano, Pake Leku eta Artxubi tabernetan).

MARTXOAK 19

18:30 MAHAINGURUA Kultur Etxean: 'BIZITZA ARDATZ JARRIZ'. Ekarpin ekologista eta feminista.

● Pandora Mirabiliako Marta Monasterio (Madrileko kazetari ekologista feminista).

● Movimento Dos Trabalhadores Rurais Sen terra-ko Debora Nunes (Brazileko MSTko koordinatzaile orokorra).

● Kooperatiba gonbidatua
Ondoren hizlariekin afari-merienda solasaldia Gaztetxean.

MARTXOAK 22

'ABORTUARTEa. Gure gorputza, gure erabakia!' Lanak entregatzeko azken eguna

MARTXOAK 30

18:30 Zine-Dokumentala gaztetxean: 'CUIDADO RESBALA' (Círculo de Mujeres). Etxeko lanen inguruko dokumentala.

abiXaran



Z ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

MARTXO(S)AK 8

Martxoaren 8a dator... baina, zergatik da data hau garrantzitsua? Loreak, kolonia eta poemak elkarri emateko? Badirudi toki batzuetatik emakumetasun hutsal bat gurtzen dela egun honetan, baina zein da martxoaren 8aren zentzu historikoa?

Badirudi XX. mende hasierarako jada borroka-omenaldi egun bezala finkatzen hasi zela, baina 1920ko hamarkadara arte ez zen martxoaren 8an ospatu beti (otsaila bukaeran edo martxoa hasieran egiten zen). Beharrezkoa da aipatzea egun honen jatorria ez dela gertakari zehatz batek finkaturikoa izan, izan ere, gerrate mundialek, Errusiako Iraultzak, sufragismoaren aldeko borroka, feminista-sozialista eta sufragisten arteko tira-birek, Europan, Estatu Batuetan eta Latinoamerikan garai haietan egondako emakume langileen greba gogorrek eta geroz eta handiagoa zen emakumeen sindikalismoaren gorakadak margoturiko egoera konplexu eta aberasgarriak ekarritako data baita.

1911an, Emakumearen Egun Sozialistaren saltsa-maltsan, Alexandra Kollontaik Europako herrialde ezberdinetan egindako mobilizazioen balantze bat eginez, honakoa esan zuen: "Emakume itsaso bat zen, izugarria, bor-bor zegoen. Leku guztietan bilerak antolatu ziren, herri txikietan, eta baita herrixketan ere; aretoak bete-bete eginda zeudenez (gizon) langileei beraien lekua emakumeei uzteko eskatu behar izan zieten. Behingoagatik, gizonak seme-alabekin etxean geratu, eta emazteak, etxeoandreak, etxeko-gatibuak, bileretara joan ziren".

Beranduago, 1975ean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE), Emakumeen Nazioarteko Urtea ospatu zuen, aurrerantzean urtero mundu osoan emakumeen eskubideen aldeko egun bat egitea gomendatuz. Hala, 1977an NBE ofizialki hasi zen Emakumeen Eguna ospatzen. Aipagarria da NBEk kontu berezia izan zuela egun honen jatorri sozialista tapatzeko.

Gaur egun, toki askotan martxoaren 8ak izaera errebindikatiboa gordetzen badu ere, beste askotan esanahi ideologikorik gabeko emakumeen omenezko ospakizun hutsal bihurtu da, San Valentín eta Amaren Egunaren arteko zerbit. Adierazgarria da oso, egunari berari Emakume Langileen Nazioarteko Eguna izena barik, Emakumeen Eguna deitzea soilik (edo Emakumeen Nazioarteko Eguna, erdibidekoa). Oraingo instituzioek ere azken aukera erdibideko hau (ez oso gatazkatsua) hobetsi dute NBEren bidetik. Martxoaren 8ak, ordea, jatorrian eta helburuetan, esanahi argi bat zuen. Ez emakumei omenaldi hutsal bat egitea, emazte, alaba, ama edo maitale izateagatik, baizik eta beren langile izaera aintzat hartu (emakumei, etxean zein kanpoan lan egin arren, izate hori maiz ukatu baitzaie), emakume izatea politizatu, genero-botere eta pribilegioetatik eratorritako diskriminazioa salatu eta beren eskubideak defenditzea.

Beraz, urtero martxoaren 8an, feminista aitzindarien borroka gogoratu, aintzat hartu, balioa eman eta feminismoarekiko konpromezua berresten dugu. Borrokarako grina datozen belaunaldi berriei transmititzeko eguna

da, gaur egun dauzkagun eskubide minimoak dohainik iritsi ez zaizkigula ikusteko, emakumeak protagonista izan dituen borroka adoretuari esker izan baita.

Hori horrela, historiari gainbegiratutxo hau eman ostean, hona bueltatu beharra daukagu. Gogoratu ostean, indartu. Indartu ostean, arnasa hartu... eta parean daukaguna ikusi. Egundaren harira, urtero egiten dugu merkatuen jendarte antolakuntzaren kritika. Nazkagarria da nola bazterten dituen kapitalismoak mendebaldeko-gizon-zuri-klase ertainekoak ez diren beste guztiak. Honen adierazgarri dira lan produktiboaren inguru datu hauek: emakumeek, gizonezkoen batezbesteko soldata bera kobratu ahal izateko urtean 82 egun gehiago lan egin behar lituzke (kontutan hartu prestakuntza maila berdintsua dagoela kalean emakume eta gizonen artean). Gipuzkoan emakumeen batezbesteko errenta 11857€ da, gizonen batezbestekoa 23224€ den bitartean. Zaintza-lanetara dedikatzen lanaldia murriztu edo lana uzten dutenen artean %90 emakumeak dira (produktibo/reproduktibo arteko). Doako lana: emakumeentzat.

Eta, zer gertatzen da lan erreproduktiboekin?

Bizitza lehenetsuna ez den gizarte bat zilegia izateko beharrezkoa da sistema hierarkikoa: desberdintasunak behar ditu. Eta pertsona eta lan batzuk ikusezin bihurtu behar ditu, bizitzaren mantenua eta kapitalaren akumulazio prozesuaren arteko tentsioa absorbitzeko.

Beharrezkoa du gatazka hau ez azaleratzea, arazo indibidual moduan bizitzea. Autosufizientzia ideal bat inposatzen da, bizitza bulnerablea eta besteen menpekora dela ukatzen duena. Autosufizientziaren ideia hau errealitate eramateko aukera bakarra pertsonen dependentzia erakusten duten esparruak ezkatzea da, zaintza ezkatzea da, eta interdependentzia esplotazio terminoetan kudeatzea. Esplotazioa emakumeentzat, emakume pobrentzat, emakume migratuentzat ... LANA SOBERAN, eta ENPLEGU DUINA FALTAN, hau da marka!

Sistemaren krisiaren eta honen aurrean planteatutako irtenbide interesatuen aurrean, gero eta zentzu handiagoa dute patriarkatua, kapitalismoa, arrazismoa, lesbofobia gaudituz, bizitza beste era batera antolatu eta eraikitze egitasmoek. Krisi ekonomikoak suposatzen duen aberastasunen birbanaketarekin prekarietatean, langabezian eta pobrezian lurperatu nahi gaituzte, austeritate neurriekin eta politika sozialetan murrizketak eginez, besteak beste. Ba ez!!!

Bizitza eta bizitzaren zaintza antolakuntza ekonomiko eta sozialaren erdigunean kokatu beharra dago: gizarte-desberdintasunen produkzio eta erreproduktio sistema batean ezin da emakume eta gizonen parekidetasuna lortu.

Pertsonala dena politikoa da! Feminismoa dugu indibidualki bizitzeko eta taldean borrokatzeko tresna. Martxoak 8, elkartasun eta borroka eguna da! Batu feminismoa.

Oñatiko Sare Feminista



V. KOBEN EGUNA / martxoak 9

Arrikruzeko bisita erdi prezioan

Martxoaren 9an, igandea, kobazuloen eguna ospatuko dute Lurpea elkarteak biltzen diren sei haitzuloetan: Sorginen Lezea (Zugarramurdi), Urdazubi (Nafarroa), Sara (Lapurdi), Mendukillo (Nafarroa), Ekainberri (Zestoa) eta Arrikruz. Egun horretako bisitak erdi prezioan egongo dira aipatutako sei kobazuloetan. Gainera, bisitarien artean sari bat zozketatuko da: bi lagunendako gau eta gosari bana Urdazubiko Irigoiena hotelean, eta Lurpeako sei kobazuloak bisitatzeko bonoa.

Arrikruz ikustera joatea pentsatzen baduzue, aurrez erreserba egitea gomendatzen da, 943082000 telefonora deituta.



Bildotsa eta esnekiak, Debagoieneko XVI Jardunaldi Gastronomikoetan

Debagoieneko Mankomunitateak XVI. Jardunaldi Gastronomikoak antolatu ditu euskaldekoko zazpi jattetxe eta bertako produktuen ekoizpen zentroekin elkarlanean. Apirilaren 27ra bitartean, degustazio menu bereziak jateko aukera egongo da, garaiko eta bertako produktuekin egindakoak, eta prezio berezietan (28 et 43 euro artean, BEZ barne). Bildotsa, Debagoieneko ardi esnekiak eta peilak egongo dira menu gutzietan.

BISITA GIDATUAK

Menuak dastatzeaz gain, bertako produktuen jatorria eta elaborazio prozesua ezagutzeko bisitak ere antolatu dira, **Lapatza** nekazaritza ekologikoko baserrira (martxoak 17), **Mendibitzu** okela ekologikoko baserrira (apirilak 19) eta **Gomiztegi** (mar. 8, 15, 22 eta 29). Gatzagako **Gatz museoa** eta Eskoriatzako **Ibarraundi museoa** (labe zeramikoa) bisitatzeko aukera ere badago.

SUKALDARITZA TAILERRAK

Jardunaldiak osatuz, honako tailerrak ere antolatu dituzte: 'Bakailaoa era ezberdinetan eta gatzatua' (martxoak 12, Hilarion jatetxean); 'Bildots menestra, gatzatua eta natillak' (mar.19, Hiper Eroskin); 'Erreillenotxoak, legatza eta entrekota' (mar. 26, Lasa); 'Peilaz betetako krepak eta Goxua' (apirilak 2, Etxe Aundi). Informazio gehiago: www.turismodebagoiena.com / 943796463 - 943718911 edo [facebook.com/DebagoienaGastronomia](https://www.facebook.com/DebagoienaGastronomia).



APIRILAREN 27RA ARTE
menu bereziak dastatzeko aukera egongo da Oñatiko **Etxe Aundi**, **Goiko Benta** eta **Torre Zumeltzegi**, Arrasateko **Hilarion** eta **Santa Ana**, Bergarako **Lasa** eta Elgetako **Maialde** hotelean

TXANDAREN OUTLETA martxoaren 7 eta 8an

Azken urteotako ohiturari jarraituz, OUTLETA antolatuko du aurten ere TXANDA dendarien elkarteak. Martxoaren 7an (goiz eta arratsalde) eta 8an (goizez) izango da. Komertzio bakoitzak bere denda aurrealdera aterako ditu bere produktu eta eskaintzak. TXANDAKO kide berria den Opel Berezao tailerrak herriko plazan jarriko ditu bere autoak. Bezeroak herriko gune ezberdinetara eramateko asmoz, Txu-Txu trenaren jarriko du TXANDAK. Doakoa izango da.



TXANDA elkarteak Txu-Txu tren zerbitzua jarriko du, bezeroak herriko gune ezberdinetara eramateko. Dohainik izango da.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

...

San Lorentzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

GoiEner



Energia berdea komertzializatzen duen euskal kooperatibak bere proiektua aurkeztuko du Oñatin, martxoaren 11n

Energia berriztagarriaren eskaria handituz, gaur egungo eredu energetikoa aldatzeko asmoz sortutako kooperatiba da GOIENER. Beste edozein energia konpainiak ematen duen zerbitzu berbera ematen du, baina desberdintasun batekin: Goienerrek bere bazkide-bezeroei saltzen dien energia %100 berriztagarria da. Martxoaren 11n Goienerreko ordezkariak Oñatin izango dira beraien proiektua aurkezten. Kultur Etxean izango da hitzaldia, arratsaldeko 18:30etan. Goiener-eko Iker Azurmendik azaldu dizkigu ekimen honen inguruko xehetasunak.

1350 BAZKIDE
Goiener kooperatiba Ordizian sortu zen 2012an. Iazko udan hasi zen argindarra komertzializatzen eta, dagoneko, 1350 bazkide-bezero ditu. Eraginkortasun energetikoaren alde diharduen RESCOOP Europako kooperatiba herritarren elkarteko kide da Goiener

Zer da GOIENER?

Argindarra komertzializatzen duen kooperatiba herritar bat gara, baina berizgarri batekin: guk saltzen dugun energia %100 iturri berriztagarrietan sortua da.

Goiener Ordizian sortu zen 2012an, bertako Garapen Agentziaren (GOIEKI) laguntzarekin, eta 32 bazkiderekin. Argindarra komertzializatu ahal izateko Industria ministerioan egin beharreko tramiteak egin ondoren, 2013ko udazkenean hasi ginen argindarra saltzen gure

bazkide eta bezeroei. Gaur egun, jada, 1350 bazkide ditugu.

Zein helbururekin sortu zen Goiener?

Bi helburu nagusi ditu Goienerrek. Batetik, gaur egungo eredu energetikoa aldatzea. Energia fosila merkaturatzen duten enpresa handien ereduari alternatiba bat eskaini nahi diogu. Gaur egun, energia elektrikoaren sektorea bost enpresa handiren esku dago, eta badirudi herritarrok ezin dugula ezer egin.

Bada, horri aurre egiteko asmoz sortu da Goiener kooperatiba. Gure helburua da %100 berriztagarria den energiaren eskaria handitzea, eta modu horretan eredu energetikoaren aldatzea eragitea. Gainera, kooperatiba bat izanik, bazkide guztion artean erabakiko dugu zertan inbertitu Goienerren diru-irabaziak.

Bigarren helburua, energia berriztagarriaren alde egitea da, energia berdea sortuko duten instalazioak planifikatuz. Azken helburua izango

litzateke guk geuk sortzea gure bazkide eta bezeroek behar duten energia; baina oso zaila da hori lortzea epe motzera, inbertsioak egiteko gure ahalmena mugatua delako oraindik, eta, gainera, Espainiako gobernuak kendu egin dituelako energia berriztagarrietan inbertitzeke zeuden pizgarriak.

Beraz, oraingoz gure esku dagoena da, energia berriztagarriaren eskaera handitzea, eta horretan ari da Goiener.

Beraz gaur egun energia erosi eta saldu egiten duzue.

Bai. Nolabait esatearren, Iberdrola bezalako enpresa batek ematen duen zerbitzu bera ematen dugu; hau da, etxean inolako aldaketarik egin gabe, argindarra saltzen diegu gure bezeroei, merkaturko enpresa handien prezio berean, baina ezberdintasun batekin: Goienerrek erosi eta saltzen duen energia, iturri berriztagarrietan sortutakoa da %100ean.

Nola bermatzen da hori? Nola berma dezakezu nik kontsumitzen dudana energia berdea dela?

Argi utzi behar da gauza bat: Goienerrek energia berriztagarria erosi eta saltzen du, baina horrek ez du esan nahi gure etxeko entxuferara energia berriztagarria iritsiko denik. Hori garantizatzeko aukera bakarra autokontsumoa da; hau da, zuk zeuk sortutako argindarra zuzenean etxean kontsumitzea. Baina energiaren merkatuan ezinezkoa da hori. Energia modu ezberdinetan sortzen da, eta gero sarean nahastu egiten da; beraz, gure etxera nahasketa bat iristen da.

Baina bai egin dezakegu, erosten duzun energia hori iturri berriztagarrietan sor-

tua dela exijitzea, eta horixe egiten du Goienerrek. Guk salerosten dugun energiak jatorri-ziurtagiria dauka; hau da, bermatzen diegu gure bezeroei, beraiek erosten duten energiak jatorri berriztagarria duela.

Epe luzera, esan bezala, helburua izango da Goienerrek berak sortzea bere bezeroek behar duten energia, baina, oraingoz, gure esku dagoena da energia berdearen eskaria areagotzea eta, horrela, eredu energetikoan eragitea.

Kooperatiba gisa eratzea erabaki duzue. Zergatik?

Bai, energiaren merkatuan dagoen oligopolioari aurre egin nahi badiogu, kooperatiba eredu da proiektu honek izan dezakeen formularik etikoena gure ustez. Kooperatiba herritarra gara, (bazkide bat, boto bat) eta irabazi asmorik gabekoa; hau da, bazkide guztion artean erabakiko dugu zertan inbertitu Goienarren irabaziak. Kooperatibaren azken helburua izango da energia berdea sortzeko instalazioak sortzea, poliki poliki.

Dagoeneko 1350 bazkide zarete, ezta?

Bai, egunean hiruzpalau baz-

“ Irabazi asmorik gabeko kooperatiba herritarra da GOIENER; bazkide bat, boto bat. Hau da, bazkide guztion artean erabakitzen da zertan inbertitu irabaziak. Epe ertain edo luzerako helburua da energia berriztagarria sortzeko geure instalazio propioak martxan jartzea

kide berri eta beste hainbeste kontratu eskaera jasotzen ari gara. Helburua da 2015ean 10.000 kontrato edukitzea. Orain arte partikularrei bakarrik saldu izan diegu, baina, laister, administrazio eta enprekin ere hasiko gara lanean.

Euskal Herri osora zabaldu nahi dugu. Gure bazkideen %95 euskal herritarrak dira, baina baditugu Cantabria, Burgos eta Madrileko bezero batzuk ere.

Zer egin behar da Goienerreko bazkide izateko?

100 euroko ekarpena egin behar da, kooperatibaren kapital sozialerako, eta kontrato aldaketa eskatu. Webgunean (goiener.com) dago inprimakia. Oso erraza da. Gaur egungo argindar faktura bat bidali behar diguzu, titularraren datuak hartzeko, eta hortik aurrerako tramiteez geu arduratzen gara.

Zein dira bazkide izatearen abantailak?

Ingurumenaren eta iraunkortasunaren alde egiten duen proiektu bateko kide izatea, irabazi asmorik gabeko kooperatiba baten bidez. Azken batean, beste edozein konpainiak ematen duen zerbitzu bera jasoko duzu

prezio berean; baina, aldi berean, energia berriztagarrien sorrera bultzatuko duzu.

Argindarraren prezioan ezin du eragin Goienerrek?

Agian bai, handiagoak bagina, baina gure publiko edo bezero objektiboa ez da prezioari soilik begiratzen diona. Goienreko bazkide egiteko 100€ko ekarpena egin behar da; beraz soilik prezioari begira dagoena nekez etorriko da. Gure bazkideak ingurumenarekin konprometitutako herritarrak dira, energia konpainia handiek duten boterearen aurrean isilik eta geldi egon nahi ez dutenak, eta energia berriztagarrien alde egin nahi dutenak.

Martxoaren 11n Oñatin emango duzue hitzaldia. Zein helbururekin?

Oñatiko FIAREko lantaldeak deituta goaz. Goiener kooperatiba zer den azalduko dugu, eta gaur egun energiaren merkatuan dagoen oligopolioaren aurrean badaukagula zeregina, eta badaudela beste aukera sozialago batzuk.

“ Bezero-bazkideei saltzen diegun argindarra iturri berriztagarrietan sortutakoa dela bermatzen diegu. Azken batean, energia berriztagarrien eskaria areagotuz, gaur egungo eredu energetikoa aldatzearen alde diharduen kooperatiba eraginkorra da GOIENER



ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezoa Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



BELAR, S.A. Irrati -Telebista

Olakua, 1 - C behea
Tel. / Faxa: 943 78 06 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

expert 

FAGOR SIEMENS SONY PHILIPS FAGOR SIEMENS SONY PHILIPS



ESKUBIDE SOZIALEN KARTA azken txanpan sartu da

► Kultur Etxean, Pake Leku elkartean eta Arrano eta Olakua tabernetan daude informazio orriak eta ekarpenak egiteko buzoiak martxo bukaera arte

Azken urteotan jasaten ari garen etengabeko eskubide urraketari aurre egin asmoz, euskal gizarte osoaren eskubide sozialak jasoko dituen karta idazteari ekin zioten Euskal Herriko eragile sozialek eta sindikatoek orain dela urtebete.

Orain arte egindako lanari esker, eskubideen karta gorpuztuz doa, eta, hala, otsailaren 8an egindako V. asanbladan aurreneko bi puntuak, **HITZAURREA** eta **OINARRIAK** onartu ziren. Orain, 3 eta 4 puntuak landu eta adostu behar dira: **ESKUBIDEAK** eta **TRESNAK**. Ahalik eta herritar gehienek ekarpenak jaso nahi dira eta, horretarako, martxoaren amaiera arteko epea dago.

Oñatin ere badako Eskubide Sozialen Kartaren inguruan lanean ari den taldea, eta dei egiten die herritar guztiei, herriko toki ezberdinetan dauden informazio orriak irakurri eta ekarpenak egitera. Horretarako buzoi bana jarri dute kultur etxean, Arrano tabernak, Olakua tabernan eta Jubilatuen elkartean. Bestela, Oñatiko karta sozialaren koreora ere (oinatikartasoziala@gmail.com) bidal daitezke ekarpenak.

Asmoa da maiatzaren 31n egingo den asanbladan onartzea eskubide sozialaren karta, eta ondoren herriz herri aurkeztuko da. Zure ekarpena beharrezkoa da! Parte hartu!



JUAN LUIS MARQUEZ 'TXARLI' / ESK-KO KIDEA

“Iraingarria da, %40ko langabezia duen zonalde batean milaka hektarea lur egotea erabilerarik gabe”



Juan Luis Marquez 'Txarli' ESK-ko sindikalistak Andaluzioako lur okupazioen mugimenduari buruzko azalpenak eman zituen Gaztetxean, bertako asanbladak gonbidatuta. Txarlik Sevillako Las Turquillas eremu militarren okupazioan parte hartu zuen iazko maiatzean, Andaluzioako SAT-ekoei (Sindicato Andaluz de Trabajadores) babesa ematen, eta orain inputatuta dago beste 22 lagunekin batera; Juan Manuel Sanchez Gordillo eta Diego Cañamares SATeko buruak, besteak beste.

“Lotsagarria eta iraingarria da han gertatzen dena” azaldu digu Txarlik; “herritarren %40 lanik gabe dagoen zonalde batean, Las Turquillas bezalako lur eremu bat,

Inputatuta dago Marquez, Andaluziako lur okupazioetan parte hartzeagatik

1200 hektarea dituen, militarren 20 zaldi edukitzeko erabiltzen da. Eta, jakina, SATekoek lur hori aprobetxatu egin nahi dute nekazaritzarako, erregadioko lur bihurtuz, piperrak, alkatxofak,

babak... landatuz, lana eta bizibidea ateratzeko”.

Marinaleda herria jartzen du eredutzat Txarlik. “Borroka gogorren ostean, El Humoso izeneko finka bat lortu zuten SATekoek, eta horri esker, bertan landatutakoa eta herrian duten kontserba lantegiari esker, langabezia tasa zero izatea lortu dute krisi garaian”.

LURRA NEGOZIO BIDE

Andaluziako Juntak lur-banku bat dauka, baina etekina atear nahi du lur sailak salduta, eta SATekoak ez daude horretarako prest; “guk ez dugu lurra guretzat nahi. Lurra ez da inorena. Guk lurra erabiltzeko eta lantzeko eskubidea nahi dugu” diote SATekoek.

Andaluziako Auzitegi Gorenean egingo den epaiketaren zain dago Txarli, baina absolbituta irtengo den itxaropena du. Berriki atera da duela bi urte egindako okupazio baten sententzia, eta inputatuta zeuden 54 lagunetatik SATeko buru diren laurak bakarrik kondenatu dituzte, zazpi hilabeteko kartzela zigorra eta 1200 €KO isunarekin. Orain ere antzeko zerbait gertatuko dela uste du, baina auskalo!

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

HITZALDI - SOLASALDIA / MARTXOAK 19, SANTA ANA, 19:00**BAKETZEAZ ETA ADISKIDETZEAZ**

Puri-purian dauden baketze eta adiskidetzearen inguruko hitzaldi-solasaldi interesgarria izango da Oñatin hilaren 19an, Arrasateko artziprestazgoak antolatuta. Gai hauen inguruan erreferentziazkoak diren goi mailako hiru hizlari izango dira bertan: Juan Maria Uriarte, Donostiako gotzain emeritua, Floren Aoiz ezker abertzaleko kidea eta Sortu-ren baitan eratu berri den 'Iratzar' fundazioko zuzendaria, eta EAJ-ko Markel Olano (azken hau erabat baieztatu gabe zegoen aldizkaria ixteko orduan).

Santa Ana aretoan izango den hitzaldian (19:00), hizlari bakoitzak bakeaz eta berradiskidetzeaz duen ikuspegia azaltzeko 20 bat minutuko tartea izango du eta, ondoren, guztion arteko elkarriketarako eta entzuleen galderentzako tartea zabalduko da.

Astebete beranduago, martxoaren 25ean, gai beraren inguruko beste hitzaldi-solasaldi bat egingo da Arrasaten, hau ere artziprestazgoak antolatuta. Lokarri-ko Paul Rios eta 'Egiari zor' nahiz 'Buesa' fundazioetako ordezkari bana izango dira hizlariak.



Juan Maria Uriarte, Floren Aoiz eta Markel Olano (azken hau erabat konfirmatu gabe) izango dira hizlariak. Beraien ikuspuntua azalduko dute eta, ondoren, ikusleen galderentzako tartea egingo da

Burujabetza ekonomikoaren inguruko hausnarketa egingo du ERNAIk

'Izan, Hezi, Hazi' ekimena jarri dute abian Debagoieneko ERNAiko gazteek. Euskal Herrian eta Europan bizi dugun une bereziaren aurrean (Espainiar estatuaren krisi estrukturala eta Europatik datorren olatu independentista) beraien ekarpena egin nahi dute. Independentziaren bideragarritasunaren inguruan dagoen intoxikazio kanpainaren aurrean diskurtso propioa eraiki nahi dute, eta helburu horrekin hainbat ekitaldi (hitzladiak, elkartrukeak...) antolatuko dituzte. Ildo horretan, ostiral honetan (martxoak 7), erabakitze eskubidearen inguruko hitzaldia egongo da Antixena gaztetxean, Mario Zubiaga EHUko irakzaskiarekin.

Kartzelaren egitekoari buruzko IKAS-TAILERRA

Michael Foucault soziologoaren 'Vigilar y castigar' liburua oinarri hartuta, kartzelaren jaiotza eta gaur egungo zigor sistemaren inguruan gogoeta egiteko ikas-tailerra egingo da martxiaren 12an, asteazkena, 18:00etan, kultur etxeko goiko solairuan. Liburuko hainbat pasarte irakurri eta komentatuko dituzte bertan.

AUTOBUS ZERBITZUA HOBETZEKO BILERA**MARTXOAK 24, UDALETXEAN, 18:30**

Herri arteko autobus zerbitzua hobetzeko helburuarekin, herritar guztiei zuzendutako partehartze prozesua jarri zuen abian Foru Aldundiak iazko udazkenean. Hainbat bilera egin ziren herriz herri, baita Oñatin ere, eta bilera horietan jasotako herritarren ekarpenak aztertu ondoren (3.300 ekarpen jaso ziren), aldundiko talde teknikoak bere lehen txostena idatzi du.

Orain hirugarren faseari emango zaio hasiera, eta diputazioak prestatu duen proposamena edo aurreproiektua herriz herri aurkeztuko da, herritarrek alegazioak jartzeko aukera izan dezaten, eta denon ekarpenekin proiektua hobetzeko helburuarekin. Oñatiko aurkezpena martxoaren 24an izango da, udaletxeko areto nagusian (18:30). Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Herritarrek egindako alegazioak aztertu ondoren, urte amaierarako idatziko du diputazioak autobus zerbitzua hobetzeko behin betiko txostena.

IRAZOLA
Okindegia



Larraña auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko labean

Margoak

TXINTXURRETA



653710121
943783012

Asteburua zaldi artean

► **Zaldiekiko komunikazioa eta zaldiek lagundutako coaching-a lantzeko tailerrak antolatu ditu POTTOKALEKUK**

Aloñako magalean dagoen Pottokaleku zentroak asteburu bat zaldi artean igarotzeko aukera eskaintzen du, martxoaren 29 eta 30ean. Zaldiengandik ikasi, nola komunikatzen diren jakin, eta zaldien laguntzarekin geure burua eta gure komunikatzeko gaitasuna ezagutzeko aukera izango dugu.

Bi tailerretan parte hartzeko aukera egongo da, zaldien arlo honetan espezialistak diren Sergio Vidal eta Talia Soldevilaren eskutik. Sergiok *'Fundamentos de comunicación con caballos'* izeneko tailerra emango du martxoaren 29an. Hurrengo egunean, *'Experiencia de coaching con caballos'* izeneko tailerra emango dute Taliak eta Sergiok. Tailer biak (120€) edo bat bakarrik (80€) egiteko aukera egongo da. Informazioa eta izen ematea: 670274461/ jelorzarza@hotmail.com.



POTTOKALEKU

Pottokaleku zentroa Jon Elorza oñatiarrak eraiki zuen 2012an. Uribarri auzoan, Aloña azpian dagoen 400m²-ko azpiegitura da, eta bertan zaldiek lagundutako ekinoterapia eta *coaching* zerbitzuak eskaintzen ditu Jonek. Naturaren erdian eta zaldiz inguratuta, geure burua hobeto ezagutu, gure ahalmen edo gaitasunak garatu, eta zaldiak maitatu eta zaldiekin gozaten ikasteko aukera ematen du Pottokalekuk.

TXIRRINKA taldeak aurtengo egitasmoen berri emango du

Aurten antolatu nahi dituzten ekitaldiak (hitzaldiak, irteerak...) aurkeztu eta, bide batez, bazkide berriak egiteko asmoz, aurkezpen erako ekitaldia egingo du Txirrinka taldeak herriko plazan martxoaren 29an. Urteko kuota 10€koa da, eta bazki egiten direnek opari bana jasoko dute.

Fenologia eta txorien kantuak Parketxean

Arantzazuko Paketxeak bi ekitaldi berezi antolatu ditu hil honetarako. Martxoaren 15ean *'Fenologia: lurrari kasu eginez'* saioa izango da, Pello Zabalaren eskutik. Hilaren 30ean berriz, txorien kantuak ezagutzeko ibilaldia egingo da Mikel Olano gidari dela. Informazio gehiago: www.gipuzkoamendizmendi.net

Zuazola institutoko ikasleen bideoa saritua



Zuazola-Larraña institutoko DBH-2ko ikasle diren Saioa Varela, Jone Alberdi eta Sara Mantxolak egindako bideoak bigarren saria eskuratu du, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen barruan Jaurilaritzak antolatutako lehiaketan. *'Zure janaria ez da hondakina'* du izenburua lanak, eta hainbat aholku ematen ditu erosketak egiterakoan eta kontsumitzerakoan hainbeste hondakin sortu ez ditzagun. Zetazeoak itsas zabalean ikustera joateko aukera irabazi dute.

Bretaniako ikasleen bisita jaso dute Ikatolan

Azken urteotako ohiturarekin jarraituz, Txantxiku ikastolako DBH-4ko ikasleek elkartrukea egingo dute Britainiako Lycée Diwan ikastetxearekin. Frantsesa lantzeaz gain, Bretania eta Euskal Herriko historia, kultura, geografia eta beste hainbat arlo jorrazteko aukera izango dute ikasleek. Azpimarratzekoa da, Diwan eskolak ere hizkuntza gutxitu bat (bretoiera) erabiltzen dutela irakaskuntza baliabide gisa, hizkuntza zelta horren desagerpena ekiditeko.

Elkar Heziko ikasleak sarituak Startinnova programan



Elkar Heziko batxilergoko ikasle diren Jone Agirre, Nagore Altuna, Aitziber Martinez de Alegria eta Aitor Lamasek egindako lana, Jaurilaritzak eta Adegik antolatzen duten START-Innova programako hirugarren saria jaso du. E-learning dinamiken bidez ekintzaitasuna sustatzea da programa honen helburua. Internet bidezko personal shoper erako proiektua aurkeztu dute. Ebook bana jaso dute sari gisa.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**
Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Hiru oñatiar ariko dira Gipuzkoako Eskolarteko Bat-Bateko Bertsolari txapelketan

► Gontzalek eta Mainerrek martxoaren 21ean abestuko dute Zumarragan, eta Urkok apirilaren 4an Mutrikun



Urko Arregi, Gontzal Belategi eta Mainer Arregi, Oñatiko Bertsolari Eskolako kideak

Martxo eta apirila artean jokatu da Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 34. edizioa bi modutara: idatzizkoa eta bat-batekoa. Idatzizkoan Oñatiko Bertsolari Eskolako neska-mutiko ugarik parte hartuko dute; bat-batekoan hiru lagun ariko dira nagusien mailan (15-18 urte): Urko eta Mainer Arregi anai-arrebak eta Gontzal Belategi.

Sei kanporaketa saio egingo dira Gipuzkoako herri ezberdinetan, eta horietako bitan izango dira oñatiarrak. Gontzalek eta Mainerrek Zumarraga-Urretxukoan abestuko dute martxoaren 21ean, eta Urko Mutrikun ariko da apirilaren 4an. Saio guztietatik puntu gehien lortzen dituzten zortzi bertsolariak sailkatuko dira finalerako. Arrasaten izango da aurtengo finala, maiatzaren 11n, egun berean ospatuko den Gipuzkoako Bertsolari Eskolaren Egunaren baitan.

Zortzina bertsolari puntuagarri kantatu beharko dituzte bertsolariak: lau oinak emanda 8ko txikian bertsolari bat; binaka, gaia emanda 8ko handian bi bertsolari; gaia emanda 3na koplak, trikiatik lagunduta; bakarka, puntuari erantzun; eta gaia emanda bertsolari bat (gehienez 5 puntuko neurrian). Beraiekin izan gara, txapelketara begira dituzten helburuak ezagutzeko asmoz.

Lehenbiziko esperientzia al duzue txapelketan?

Urko: Igaz ere joan nintzen eskolartekora, baina helduen mailan arituko naizen lehen aldia da.

Gontzal: Maila honetan kantatzen dudan lehen aldia da nahiz eta joan den urtean hauren mailan kantatu nuen.

Mainer: Nire kasuan ez da eskolartekora joaten naizen lehen aldia, azken bi urteetan ere joan naiz.

Nola prestatzen duzue eskolartekoa?

U: Ez dugu gehiegi prestatzen. Bertsolari eskolako orduak eta noizbehinka etxean errima zerrendaren bat edo...

G: Ez dugu ezer berezirik egiten bertsolari eskolara ordu bat gehiago joateaz gain.

M: Ez dugu prestaketa oso berezirik egiten. Bertsolari eskolara astean ordu bat gehiagoz joaten gara eta han eskolartekoan egingo ditugun ariketak egiten ditugu, beste askoren artean.

Zein da zuen helburu nagusia?

U: Nire helburua ondo kantatzea da. Baina saioaren arabera helburuak aldatu daitezke. Hala ere, finalera heltzea behintzat ez dut helburutzat.

G: Neure burua gustora ikustea da neure helburua. Bertsolari jarraian kantatu ezkerokozik itzuliko naiz etxera.

M: Nire helburua saiotik gustura irtetea da, akats handirik egin gabe eta gaiei ondo erantzun izanaren sententzioaz. Hala dirudi, baina ez da helburu erreza.



Musika eskolako ikasleak sarituak Andoaingo Piano Jaialdian

Jose de Azpiazu musika eskolako bederatzi ikasleek parte hartu dute aurtengo Andoaingo Piano Jaialdian, eta oso maila ona eman dute. 'A' mailan, bakarka, urrezko domina jaso zuten Izar Diaz, Unai Pedrosa, Asier Berreteaga eta Anje Maiztegi; eta zilarrezkoa Ana Belen Ferrero, Unai Agirre eta Naroa Martiarenak. 'B' mailan, lau eskutarako modalitatean, Sara Mantxola eta Marta Igarzabalek aipamen berezia jaso zuten, eta, gainera, jaialdiaren amaierako ekitaldian jotzera gonbitea.

Musika Eskolako martxoko kontzertuak

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek hiru kontzertu eskainiko dituzte martxoan zehar

-MARTXOAK 14, OSTIRALA, 19:00, SANTA ANA.

Haize, akordeoi taldeak (3-4 mailak) eta triki-pandero taldea

-MARTXOAK 24, ASTELEHENA, 18:30, SANTA ANA.

Abesbatza, pianoa, akordeoia, triki-panderoa eta pupurria.

-MARTXOAK 26, ASTEAZKENA, 18:30, SANTA ANA.

Musika tailerrak (1, 2 eta 3), Prestakuntza, akordeoi taldea (2. maila), Ganbara taldea, gitarra taldea eta txistulariak

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA


Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

Hegaldi luzeak parapentean


► Debagoiengan egin den hegaldirik luzeenean eskualdeko lau mendi handiak lotu dituzte: **Udalaitz, Kurtzeberri, Aloña eta Aizkorri**



Debagoiengan ere egin daitezke hegaldi luzeak, baldintzak onak badira eta eguraldiak laguntzen badu. Orain arte egin den hegaldi luzeenean, eskualdeko lau mendi handiak (Udalaitz, Kurtzeberri, Aloña eta Aizkorri) lotu zituzten iazko abuztuan Amillena Parapente taldeko Iñigo Diaz (Oñati), Iñigo Gabiria (Elorrio) eta Jon Iriartek (Arrasate).

Udalaitzeko ipar-mendebaldetik, Las Minas izeneko gunetik aineratu ziren, Elorriotik gertu. Hegan egiteko baldintzak oso onak ziren, eta 1600 metroko altuera har zitekeenez, Urkulu aldera abiatu ziren hirurak.

Normalean, hodeien azpian eta korrante termikoen bidez hartzen da altuera parapentean, sai edo putreek lagunduta, askotan. Baina leku batetik



Laino-orma Aizkorri (Arg.: Amillena)

bestera joatean altuera galtzen da; hala, Kurtzebarrirainoko trantsizioan 500 metro galdu zituzten, baina hara iristean 5 metro/seguduko abiadurako termika polit batek (2 solairuko etxe bat segundu batean igotzea bezala) berriz



Buetraitzera iristen (Arg.: Amillena)

ere 1600m.-ko altuera hartzeko aukera eman zien, Kurtzeberriko gaina hartuz.

LAINO-ORMAK

Handik Aloña eta Aizkorri aldera jo zuten. Hegaldiaren parte honetan gauza berezi bat gertatzen da; Aizkorri inguruan mendiak oso altuak dira, hodeien beheko partea beste leku batzuetan baino baxuago egoten da, eta kontuz ibili behar izaten da hodei barruan ez sartzeko. Batzuetan ezin da Aizkorriraino joan, hodeiek ez dutelako pasatzen uzten.

Aizkorritik Oñatira itzuli ziren, hodei altuak zeudela aprobetxatuz, eta 1500 metroko altuera hartuz. Argazkiak atera, plaza gainetik pasa eta Berezao inguruan lurreratu ziren. Hiru orduko hegaldia izan zen, eta 40 km.-ko distantzia egin zuten, gutxi gora behera, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Zegama gainetik pasatuz.

OHARRA: Aire Kiroleko euskal federazioaren txartela egiteko epea zabalik dago apirilaren 15era arte. Aurrez derrigorrezkoa da ikastaroa egitea parapenteko eskola batean: **Gasteiz** (676477597), **Sopelana** (607213431), **Donostia** (629436866), **Orduña** (608871743)

Kurtzeberriko Parapenteko Distantzia Txapelketa

Debagoieneko parapente zaleak biltzen dituen Amillena taldeak antolatzen du urtero Kurtzeberriko Parapenteko Distantzia Txapelketa. Kurtzeberri mendian aineratu eta parapentean ahalik eta distantzia luzeena egitea da erronka. Distantzia zuzena neurtzen da.

Partehartzaileek email bidez bidali behar dute (amillenahegan@gmail.com) gps-ko track-a, eta gero antolatzaileek egiaztatzen dute. Trackak bidaltzeko epea martxoaren lehen hasten da, eta irailaren 30ean amaituko.

Orain arte egin den hegaldirik luzeena iazko txapelketan lortu zuen Gorka Elduaien adunarrak. Aloña mendi lasterketako egun berean izan zen. Kurtzeberri tontorrean eguerdiko ordubatean aineratu eta Errioxako Fiteroraino iritsi zen, sei orduko hegaldia eginda. Gorkak ez zuen altuera oso handia lortu, 2.000 metro inguru hegaldi osoan, baina hegan egiteko baldintzak oso onak ziren eta aszendentzia asko aurkitu zituen bidaian zehar.

**Kurtzeberri
aineratu eta
Errioxako
Fiteroraino iritsi
zen, 6 orduko
hegaldiaren
ondoren**

EKINTZA OSAGARRIAK kiroldegian

Zubikoa kiroldegiko fitness arloko ohiko eskaintza osatuz, hainbat jarduera edo ekintza osagarri antolatu ditu 'E-goitek' kirol zerbitzu enpresak datozen hilabeteetarako. Ekintza hauek doan dira kiroldegiko ikastaroetan dabiltzanentzat; gainerakoan, bazkideek 4€ ordaindu behar dute, eta bazkide ez direnek 6€.

▶ ARETO BIZIKLETA ERRONKA / martxoak 8

Spinning saio berezia egingo da Zubikoa kiroldegian martxoaren 8an. Aurten lehen aldiz antolatu den Master Class Zirkuitoa osatzen duten bost saioetako laugarrena izango da. Ordu eta erdiko saioa izango da, goizeko 10,30etan hasita. Hurrengo saioa martxoaren 22an izango da, Zumarragan.



▶ SPINNING MARATOIA / APIRILAK 5

Apirilaren 5ean Zubikoa kiroldegian egingo den Spinning maratoiarekin emango zaio amaiera I. Areto Bizikleta Erronkari. Hiru orduko saioa izango da, eta ehun bat lagunentzako toki egongo da.

▶ PILATES MASTER CLASS

martxoak 14

Martxoaren 14an Pilates saio berezia egingo da Zubikoa kiroldegian.



▶ FITNESS JAIA

martxoak 29

Martxoko azken larunbatean Fitness Jaia egingo da Zubikoa kiroldegian. Goizeko 10:30etan hasita, hiru jarduera ezberdin uztartuko dira: 'Body Tono', 'Gimnasia Armonikoa' eta 'Zunba' (musikak lagundutako jarduera).

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

'E-goitek' Kirol Zerbitzu enpresako Asier Arregik kiroldegian eskaintzen diren jarduera guztiei buruzko informazio pertsonalizatua emango dizu, zure nahi eta beharren arabera jarduea aukeratzeko. Eskatu informazioa emailaz egoitekzubikoa@gmail.com edo aurrez aurreko txanda eskatu 943716375 telefono zenbakira deituta.

Kirol ekitaldiak antolatzeko DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Urtean zehar Oñatin antolatzen diren kirol ekitaldi-etarako dirulaguntzak emateko araudia onartu berri du udal Kirol sailak. Dirulaguntzak emateko irizpideak finkatzeaz gain, urtean zehar herrian izango diren kirol ekitaldien egu-tegia eta planifikazioa egiteko aukera izango du kirol sailak, eta, bestalde, antolatzailerak alde aurretik jakingo dute zenbateko laguntza emango dien Udalak.

Laguntza hauek herrian kirola sustatzea helburu duten jarduerak –jolas izaerakoak nahiz lehia izaera dutenak– antolatzeko izango dira. Dirulaguntza deialdia martxoaren erdialdean argitaratuko da GAOn, eta ondorengo egunetik hasita hilabeteke epea egongoda eskaerak aurkezteko.

Deialdi honetatik kanpo daude Aloña Mendi eta Antxintxiketan elkar-teak. Hauekin hitzarmen bereziak ditu Udalak. Aloñako Igoeraren antolatzailerekin ere hitzarmen berezia sinatu du aurten, hamargarren urteurrena dela eta.



Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK



Irtenbide onenak isolamendu termikoko sistemetan (SATE).

kuber@kuber.es Tfno: 943 73 35 73 www.kuber.es

OÑATIKO XXIII. DUATLOIA martxoaren 15ean jokatu da

Oñati Triatloi Taldeak antolatuta, martxoaren 15ean (15:30) jokatu da Oñatiko Duatloia 23. edizioa. Euskadiko Duatloi zirkuitorako bosgarren proba puntuagarria izango da Oñatikoa, eta 300 bat duatleta bilduko ditu.

Ilbidea ohikoa izango da. Lehenengo, 10 km.-ko korrika saioa egin beharko dute lehiakideek, herri barruko zirkuitoari bi buelta emanez; ondoren, 40 km.-ko bizikleta saioa (Deskargako buelta); eta amaitzeko 5 km.-ko korrikaldia. Foruen enprantzan egongo da *boxes* edo trantsizioak egiteko gunea. Iaz, Felix Javier Martinez (1:53:55) eta Lourdes Oiarzabal (2:20:13) izan ziren azkarrenak.

XABIER LUIS INDARTSU

Atxintxika taldean ari den Xabier Luis oñatiarra denboraldi hasiera oso ona egiten ari da. Orain arte jokatu diren Sprint erako duatloietan aurreneko hamarren barruan sailkatuta. Sopolako duatloian 6. sailkatu zen, Ermuakoan 9. eta Mungiaikoan 8. Zirkuitoko sailkapen orokorreko 3. postuan dago une honetan.



Xabier eta Joseba Luis anaiek korrika



Aitortza Pedro Irurzun 'Naparra'ri

Aurtengo taldeen aurkezpen ekitaldia aprobetxatuz, Aloña Mendiko txirindularitza sailak oroigarri bat eman zion Pedro Irurzun 'Naparra'ri ia 30 urtez herriko txirindularitzaren alde egindako lana aitortuz. Naparrak lanean jarraituko duela esan zuen, baina urte askoren ondoren presidente kargua utzi du Kepa Umerezen eskuetan.



Eskolarteko proba martxoaren 22an

Benjamin, Alebin eta Infantil mailako txirindulari probak jokatu dira martxoaren 22an Oñatin, Enpresagintza fakultatearen inguruan, 16:00etan. Bertan izango dira Aloña Mendi-Lizarralde Kirolak taldeko 20 mutilak.



SEI DOMINA KARATEAN

Sei domina ekarri zituzten Aloña Mendiko karate saileko gazte-txoek Eibarren jokatuako Uda-berriko Gipuzkoako txapelketatik. Alazne Untzuruntzaga, Xabier Porras, Danel Casais, Gaizka Leza, Karnele Egaña eta Imanol Astudillok lortu zituzten dominak

IBAN LETAMENDI irabazle Cangas de Onisen

Iban Letamendik bikain hasi du mendi lasterketen denboraldia. Urteko bere lehen lasterketan garaipena lortu zuen Cangas de Onisen, 02:33:41 eginez 29 kilometro eta 1800 metroko desnibel positiboa zeukan lasterketa. Iban mendi lasterketen euskal selekzioan ari da aurten ere, eta Espainia nahiz munduko kopako probetan parte hartuko du

MENDI IRTEERA Aloña Mendirekin

Hil honetarako Aloña Mendik antolatu duen mendi irteera Urbasako tontorrik garaie-nera (Dulantz, 1243m.) izango da, martxoaren 16an.

ESKI ZEHARKALDIA Goi Mendi Eskolarekin

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatuta, XXV. eski zeharkaldia egingo da martxoaren 15-16an Piri-niotan. Ilbide balizatuan, lasai eta irakasle baten laguntzarekin egingo da. Plaza mugatuak: www.gmf-fgm.org / 943461440.

BASOKO ARKU-TIROA Oñatin

Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuta, basoko arku-tiroko euskal ligako 3. jardunaldia jokatu da Oñatin, Zozopase inguruan, martxoaren 23an, goizeko 9etatik aurrera.

OPARITU EMOZIOAK

- Pixoihal tartak
- Gosariak etxez etxe
- Ospitaletera bidalketak

Tel.: 663 764 511

www.cestasyregalosadomicilio.com



Argk.: Noticias de Gipuzkoa



IGERIKETA

JOSUNE ODRIOZOLA bost domina Espainiako txapelketan

Josune Odriozolak bost domina (urrezko bi eta zilarrezko hiru) lortu zituen otsailaren 8-9an Valentzian jokaturako igeriketa egokituko Espainiako txapelketan, gazte mailan. Urrezkoak 400Krol eta 200Estiloetan eskuratu zituen; zilarrezkoak berriz, 100 Tximeleta, 200 Estilo eta 4x50 errelebo proban, azken hau Donostiako Konporta taldeko kideekin batera.

Nerea Diazek Espainiako txapelketarako hiru minima lortu ditu

Nerea Diazen izena ere azpimarratu beharra dago, Aloña Mendiko igerilari gazteak urrezko bi domina eta zilarrezko bat lortu baititu Gipuzkoako Infantil mailako igeriketa txapelketan. Urrezkoak 100 Bizkar (01.08.56) eta 200 Bizkarrean (02.29.37) lortu zituen, eta zilarrezkoak 100 Libreetan (01.02.65). Dominak lortzeaz gain, Espainiako txapelketan parte hartzeko minimak lortu ditu Nereak.



Nerearen taldekideek ere maila ona eman zuten Gipuzkoako txapelketan. Eric Ugarte 3. sailkatu zen 50 Libreetan (27.63) eta bosgarren 100 Libreetan. Xabier Urbina 4. eta 5. geratu zen 50 eta 100 Bizkarrean, Miren Sanz de Galdeano laugarren 400 Estiloetan, eta Asier Ibabe seigarren 200 Estiloetan. Taldeka, Aloña Mendi 7.a izan zen 14tik.

Bestalde, Iruñan jokaturako Euskal Herriko txapelketa absolutoan, Xabier Urbina 12. sailkatu zen 50 eta 100 Bizkarrean; Nerea Elorza 6.a izan zen 400 Libreetan, eta 12.a 200 Libreetan, eta Nerea Uriarte 15. sailkatu zen 200 Librean



ATLETISMOA

SERGIO GARCIA ETA SARA GOMEZ Espainiako Kros txapelketara

► Taldeka 15. sailkatu da Aloña Mendi Espainiako kros luzeko txapelketan

Aloña Mendiko atletismo taldea kros denboraldi bikaina egiten ari da. Martxoaren 2an Espainiako taldekako kros txapelketan parte hartu zuen, bigarren urtez jarraian, eta 15. postuan sailkatu zen 48 talderen artean.

Bakarkako lanari erreparatuz gero, Sergio Garcia nabarmendu behar dugu, bera izan baita taldeko erreferentzia nagusia. Hirugarren sailkatu zen Euskadiko kros motzeko txapelketan, eta bosgarren kros luzean. Horrenbestez, Euskadiko selekzioaren deia jaso du, martxoaren 16an Meridan jokaturako den Espainiako txapelketan parte hartzeko. Bere hamaikagarren partehartzea izango da Espainiako txapelketan

SARA GOMEZ INDARTSU

Sara Gomezen izena ere azpimarratu behar da. Bere lehen urtea du Junior mailan, eta oso maila ona ematen ari da, bai pista estalian eta baita krosean ere. Pistan bere markarik onenak hobetu ditu 800 (2'31") eta 1500 metrokoan (5'07"), marka berria ezarriz Aloña Mendiko emakumezkoen rankinean. Gipuzkoako Junior mailako txapelguna izan da 800m.-tan, eta Euskadiko seigarrena, maila absolutoan, 1500m.-koan.

Aurten gogorrago entrenatzen ari dela aitortu digu, eta pistan ez ezik, krosean ere jaso ditu egindako lanaren fruituak. Eibarko krosa irabazteaz gain, Gipuzkoako txapelketan hirugarren sailkatu zen, eta Euskadikoan seigarren. Horrenbestez Euskadiko hautatzailearen deia jaso du Espainiako txapelketarako. "Ilusio handia egiten dit. Gogor entrenatzen ari naiz, eta Espainiako txapelketara jaotea sari polita da".. Infantil eta Kadete mailan ere egona da Sara estatuko txapelketan.



Jose Luis Garcia eta Ramon Varela ere Espainiako txapelketan izango dira

BETERANOAK ERE SASOIKO

Jose Luis Garcia eta Ramon Varela Aloña Mendiko korrikalari beteranoak ere lan bikaina egiten ari dira. Euskadiko kros txapelketan podiumera igo ziren 55 urtetik gorakoen mailan, eta Espainiako txapelketan izango dira martxoaren 16an Meridan. Iaz hirugarren sailkatu zen Jose Luis; ea aurten ere podiumean sartzerik duten.

PAKO TABERNAKO KONTZERTUAK

Zuzeneko musikaz gozatzeko aukera eskaintzen du Pako tabernak igande arratsaldetan (19:30), hamabostero



Kale Zaharreko PAKO taberna erreferentziatzeko leku bihurtu da herriko musika zaleentzako. Iazko udaberrian hasi ziren kontzertuak antolatzen bertan eta, dagoeneko, hogeit hamar talde pasa dira bertatik, hala nola, *Petti*, *Joseba Irazoki*, *Pete Ross & The Sapphire*, *Dead Bronco*, *The Potes*, *Belceblues*... Rock giroko musika izaten da normalean, baina tarteka *blues* edo *folk* estilokoak, bakarlariak eta akustikoak ere izaten dira. Urtarrilean, adibidez, musika eta bertsoak uztartzen dituen *Bi Bala* taldearen saio arrakastatsua izan zuten. "Geuk aukeraketan ditudunian, batez be rock estiloko taldiak ekartzen ditudugu, geure gustuak, eta formato honetara ondo moldatu ahal diranak. Baiña, beste batzutan, taldiak eurak deketan doskue, eta halakotan eztozu baldintzarik ipintzen estilo aldetik" azaldu digu Xabi Elortzak, kontzertuen antolatzaileak.

IGANDE ARRATSALDETAN

Domeka arratsaldetan (19:30) izaten dira kontzertuak Pako tabernan. "Behin edo beste, ostiral ilunkaran be antolatu izan ditudugu, baiña ordu horretan sukalde zerbitzua daku tabernan, eta oreka billatu bihar da. Gaiñera, bizilagunekiko elkarbizitza be zaindu gura dogu, iñori arazorik sortu barik. Domeka arratsaldetan, normalian, ez da ezer egoten Oñatin, eta uste dogu ordu egokixa dala. Jende asko etorten da espreski kontzertuak entzutera".

Eskertzekoa da, zinez, halako eskaintza aukeran izatea herrian bertan eta doan. Eta antolatzaileak ere gustora daude jendearen erantzunarekin. "Bai, jendiak oso ondo erantzuten dau, eta interesa erakusten dau gaiñera; iritzixak eta sugerentziak be egiten doskue, eta hori eskertzekua da" adierazi digu Xabik.

Giro polita sortzen da Pako tabernan, eta musikariak ere

gustora egoten omen dira. Bukaeran 'oriñala' pasatzen da eta jendearen borondatearekin batutakoa ematen zaio taldeari. Afari-lega ere antolatzaileen kontura izaten da. "Halaxe funtzionaiten dogu" azaldu digu Xabik; "guk eskenatokia eta musika ekipua jartzen ditudugu, eta musika jo gura dauenak leku bat dako hemen; musikiarekin dirua egin gura izan ezkeru, hau ez da leku aproposa".

Beraz, jendeak erantzuten duen bitartean, kontzertuak antolatzen jarraituko dute Pakoko lagunek; hilean bi, gutxi gora behera. "Guri musika gustaiten xaku, eta gero eta gutxiagotan faten garenez kontzertuetara, ekarri egiten ditudugu taldiak. Eta bide batez, herritxan mugimendu pittin sortu. Talde asko dago Euskal Herrixan, eta tabernetako formatua, segun ze musika motarako, oso aproposa da".



Martxoan bi kontzertu egongo dira Pako tabernan: 'Xabi San Sebastian Band' (martxoak 16) eta 'Riffs and Chips' (martxoak 30)

MARTXOKO KONTZERTUAK

Martxorako ere bi kontzertu antolatu dituzte. Hilaren 16an (19:30) 'Xabi San Sebastian Band' taldearen bisita izango dute. Ibilbide luzeko musikaria da Xabi. Alboka taldea, Kepa Junkera edo Harkaitz Canorekin kolaboratu izan du, besteak beste. Hiru disko ditu; azken

'Erraiak', 2012koa, sustraidun rockean murgiltzen da. Igor Telletxea eta Matthieu Aranbururekin izango da Oñatin.

Bestalde, martxoaraen 30ean (19:30) 'Riffs and Chips' gasteiztarrek joko dute Pakon. Blues, rock eta soul estiloko musika egiten dute.

Oraingoz, kontzertuak bakarrik antolatu izan dituzte Pako tabernan, baina musikatik aparte ere ba omen dute ideiarekin bat edo beste, baina ezer lotu barik oraindik. Dena den, Xabik gonbitea luzatzen du: "norbaitek ideia edo proposamenen bat baldin badako eta zerbait antolatu gura badau, guregana etorri besterik ezta".





Argazkiak: Roberto Hernandez



‘Oñati 3izirik’ diskoa prest dago

► Herriko 9 talde eta bakarlariren artean grabatutako lana da. ► Martxoaren 15ean aurkeztuko dute Gaztetxean



Herriko 9 musika talde, bikote eta bakarlariren artean grabatu duten ‘Oñati 3izirik’ diskoa hilaren 15ean aurkeztuko dute Antixena gaztetxean. Aurkezpen kontzertua izango da, diskoan parte hartu duten musikariek zuzenean joko baitute.

Abenduaren 26an egin zen diskoaren grabaketa gaztetxean bertan eta zuzenean. Baliabide gutxirekin, baina ilusio handiz egindako lana da. Diskoan parte hartu duten musikari guztiak herrikoak dira eta hasiberri samarrak, diskorik argitaratu gabeak. Izan ere, horixe baita disko honen helburu edo arrazoietako bat; alegia, herriko musika talde berri samarrei bozgorailu bat eskaintzea. Aurretik ‘Oñati Bizirik’ (2006) eta ‘Oñati 2zirik’ (2009) plazaratu ziren planteamendu berberarekin.

Diskoa 3 eurotan egongo da salgai herriko leku desberdinetan. Dena den, martxoaren 15eko aurkezpen-kontzertuan sarrerarekin (4€) batera eskuratu ahal izango da.

Udaberriari ongietorria PAKE LEKUan

Kultur ekitaldi ugari antolatu ditu Pake Lekuk udaberriari ongietorria emateko. **Martxoak 17:** kontzertua Agustinoetan (18:00); **Martxoak 18:** Diabetesari buruzko hitzaldia Pake Lekun (17:30); **Martxoak 19:** Gernikako jubilatuen ‘Yaya Ifo de padres’ antzezlanana Santa Anan (17:00); **Martxoak 20:** Bingo berezia (17:00); **Martxoak 21:** Arantzazuko Parketxera bisita.



Pelikuletan bezala!

LEARNING ENGLISH ► HAVING FUN ► MAKING FRIENDS ► BECOMING FAMILY

Izena emateko
www.summerintheusa.com
web orrian sartu eta
“inscripción 2014”-an klikatu

Tel.: 943 22 49 32
office@summerintheusa.com
Vitoria-Gasteiz kalea, 18 behe
Donostia



Epe mugatua!!

‘IRAKURKETA ERRAZA’

ekimena jarri du abian udal liburutegiak, irakurtzea plazerra eta eskubidea delako

► Arrazoi ezberdinengatik irakurtzeko eta ulertzeko zailtasunak dituzten herritarrei laguntzeko ekimena da

IRAKURKETA ERRAZA (Lectura Fácil) izeneko mugimendua irakurtzeko demokraziaren printzipioari erantzuten dion ekimena da; hau da, pertsona guztiok dugu irakurketaz gozatu eta irakurketaren bidez informazioa jasotzeko eskubidea.

Informazioan eta ezagutzan oinarritutako gizarte batean bizi gara eta, beraz, behar sozial bat da pertsona guztiak irakurtzeko gai izatea, bestela baztertuta geratzeko arriskua dutelako.

Zoritxarrez, ordea, gaur egun populazioaren %30 inguruk irakurtzeko zailtasunak ditu, arrazoi ezberdinengatik: inmigrazioa, eskolatzeko urria, irakurketan berandu hasi izana, ezgaitasun intelektuala, zahartzaroa... Eta, hain zuzen ere, pertsona edo kolektibo horiei laguntzeko asmoz sortzen da Irakurketa Erraza mugimendua.

Horretarako, erraz irakurri eta ulertu ahal izateko moduko materiala (liburuak, egunkariak, webguneak...) sortzen ditu Irakurketa Erraza elkarteak. IFLA erakundeak (Liburutegi Elkarte Nazioarteko Federazioak) emandako irizpideen arabera sortu eta egokitutako materialak dira, edukia, hizkuntza-maila eta forma edo diseinua bereziki zainduz. Esaldi laburrak, zuzenak eta zehatzak erabiltzen dira, eta diseinuari dagokionez esaldi arteko tarte zabalak, parrafo motzak eta letra handiagoak.

Irakurtzeko testuak sortu eta egokitzeaz gain, Irakurketa Erraza elkarteak irakurle talde edo klubak sorrera sustatzen du, zailtasunak dituzten pertsonen lagundu eta irakurzaletasuna sustatzeko asmoz.

Irakurketa Erraza mugimendua Suedian sortu zen 70.eko hamarkadan, baina gure artean oso berria da oraindik. Duela bi urte eratu zen Euskadiko Irakurketa Erraza elkarteak, eta poliki poliki ari da zabaltzen liburutegi, eguneko zentro eta zaharren egoitzetan. Oñatiko udal liburutegia Irakurketa Erraza ekimenarekin bat egiten duen lehenengoetakoa izango da.



IRAKURKETA ERRAZKO LIBURUAK

Esaldi laburrak, zuzenak eta zehatzak erabiltzen dira, eta diseinuari dagokionez esaldi arteko tarte zabalak, parrafo motzak eta letra handiagoak.



Goiko logo edo ikurra dute irakurketa errazeko liburuak

Irakurketa errazeko 80 nobela herritarren eskura udal liburutegian

Irakurketa Erraza mugimendua oso berria da oraindik estatu mailan, eta irakurketa errazeko irizpideen arabera sortu edo moldatutako 80 nobela besterik ez daude gazteleraz. Euskaraz bat bera ere ez, oraindik.

Udal liburutegiak erosi egin ditu 80 titulu horiek eta, dagoeneko herritarren eskura daude helduen liburutegian. Gehienak, klasiko unibertsalen egokitzapenak dira, irakurketa errazeko irizpideen arabera moldatutakoak; baina badira espreski sortutako nobelak ere.

Irakurketa Errazeko Taldeak sortzeko deialdia

Irakurketa errazeko liburuak erostez gain, Irakurle Taldeak sortzeko asmoa ere badute udal liburutegiko arduradunek. Ildo horretan, zaharren egoitzan eta Eguneko Zentroan era honetako talderen bat sortzeko aukera aztertuko dute.

Baina, horrez gain, liburutegian bertan talde bat sortzeko deialdi irekia egin dute. Irakurtzeko zailtasuna duten 18 urtetik gorako pertsona guztiei dago zuzendua. Liburutegiko zuzendari Arantzazu Ibarrodok gidatuko du taldea, eta hilean behin elkartuko dira liburutegian bertan, irakurketa errazeko nobelak irakurtzera. Irakurtzeaz gain, kultura orokorreko hainbat kontzeptu ere landuko dituzte (historia, geografia, artea...) irakurritako nobelarekin lotuta betiere.

Asmoa da apirilean zehar martxan jartzea taldea. Beraz, interesatuek martxoan zehar eman behar dute izena udal liburutegian beratan.

Irakurle taldeko kide egiteko, liburutegian eman daiteke izena martxoan zehar

» UDAL LIBURUTEGIA - MARTXOA

► 'TERTULIXAN' IRAKURLE TALDEAK



Udal liburutegiko irakurle taldeek saio berri bana izango dute hil honetan, aurrez irakurritako liburua aztertzeko. Gaztelarako taldean **Albert Camus**-en (Frantzia, 1913-1960) 'El extranjero' nobelari buruz ariko dira martxoaren 18an (18:30).

LAURA INTEG
etorriko da liburutegira,
'Sisifo maite minetz'
nobela-saiakerari buruz
hitz egitera.
Ekitaldi irekia izango da

► **LAURA MINTEGI**rekin **SOLASEAN**

Euskarazko irakurle taldeak **Laura Mintegi**ren (Lizarra, 1955) 'Sisifo maite minetz' nobela-saiakera aztertuko dute, idazlea bera bertan delarik, **martxoaren 25ean** (18:30). Saio hau emakumeen martxoko programazioaren barruan sartzen da eta irekia da; edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, irakurle taldeko kidea ez izanda ere.

► **3-6 URTEKO AURRENTZAKO IPUIN KONTAKETA SAIOA**

Hileko azken ostegunetan haurrentzako ipuin kontaketa saioa egoten da udal liburutegian 'OSTEGUN KONTALARIK' programaren barruan. Hili honetakoa 3 eta 6 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta egongo da, Amaia Nekane ipuin kontalariaren eskutik, 'Ikusi makusi... Erle, elbi berdea!' izeneko kontakizunarekin. Gonbidapenak aurreko astean zehar eskuratu behar dira liburutegian bertan.

► **AZALEKO IPUINAK**
0-2 urteko haurrentzat eta hauen gurasoentzat

0-2 urteko haurrentzat eta hauen gurasoentzako saio berezia egongo da apirilaren leian, Haurtxotekan (18:00). Literaturaren mundura hurbiltzeko saioa, abesti, ipuin, hitz-joko, poema eta masajeez baliatuz. Saroa Bikandi ipuin kontalariak eta haur masajeko irakasleak gidatuko du saioa. Hilaren 28a baino lehen eman behar da izena; 10 familiendako lekua egongo da

► **IPUIN KONTAKETA**
4-8 urteko haurrentzat

Apirilaren 2an, Haur Nazioarteko Haur Liburuaren Eguna ospatuz, 'Ipuin lotsatiak' izeneko saioa egongo da haurren liburutegian, 4-8 urteko neska-mutikoei zuzenduta, Odei Arregi ipuin kontalariaren eskutik.

► **HELDUENTZAKO**
ipuin kontaketa saioa

Apirilaren 2an, arratsaldeko 19:00etan, helduei zuzendutako ipuin kontaketa saioa egongo da Udal Liburutegian.

Ilea, **nahi duenarentzat**
zona/sesioa **30€**

not+vello ©
fotodepilación con tarifa plana

Olakua 1 Bajua
☎ 943716713
onati@nomasvello.com

www.nomasvello.es

Fotodepilazioa Gaztetze-fototerapia Azaleko garbiketak Opari txartelak

MARTXOKO AGENDA

antzerkia

'Hitzak'

HIKA TEATROA taldearen azken lana ikusteko aukera izango dugu martxoaren 16an (Santa Ana, 19:30). Agurtzane Intxaurreak eta Maite Iturbek idatzitako istorioa da, emakumeenganako tratu txar emozionalen inguruko hausnarketa egiten duena.

Hiru emakume (Klara Badiola, Ainhoa Aierbe eta Ane Pikaza) eta gizonetzko bat (Jabi Barandiaran) dira protagonistak. Egunez egun eta poliki poliki gertatzen den tragedia baten istorioa kontatzen du. Emakume gaztea, maite duen gizonarekin ezkondu berria, zorionsu bizi da. Baina, hala ere, zerbait aldatzen ari da. Senarrak jada ez dio garai bateko hitz polit eta goxorik xuxurlatzen; aitzitik, bera maitemintzea lortu zuten hitz polit haiek, hitz zaurgarri bihurtu dira,

**martxoak
16**

Tratu txar emozionalen inguruko hausnarketa egiten duen antzezlan

iraingarri eta mingarriak. Gizonetzkoak erabiltzen dituenak, bere frustrazioak sendatzeko. Emakumezkoak isiltzea erabakiko du, hobe beharrez. Hitz mingarriak sartzen direnean, edozer gerta liteke.

Tratu txarrak? Ez. Ez derrigorrez... Gaizki tratatuak, bai; eta horixe da tragedia askoren hasiera.

Istorio hau gaizki tratatuak izan diren emakumeak, edo are okerrago, tratu txarrak jasaten dituztenak ulertzeko sortua izan da. "Euren bizitza hilda dagoela jakinda ere, zergatik jarraitzen dute hortxe, toki berean, mugitu ezinik, beren maiteaz errukituz. Zergatik?" galdetzen du Intxaurrea zuzendariak. **Santa Ana, 19:30.** (Sarrera, 10€)



IKUS-ENTZUNEZKOA Euskal Herriko altxorretan barrena

ARKAITZ ASTIAZARAN



Udal Euskaltegian, Martxoak 25, 18:00

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiak antolatuta, Arkaitz Astiazaran Lasturko mutilak egindako 'Euskal Herriko altxorretan barrena' izeneko dokumentala ikusteko aukera izango dugu martxoaren 25ean, 18:00etan, euskaltegian bertan (Bidebarrieta 18).

Iazko udaberrian Euskal Herri guztian zehar egindako 4.400 km.-ko bizikleta-bidaia ikus daiteke da bertan. Gure herrialdeko paisaia, tradizio, mendialde, animalia, itsasaldea, herri eta natur inguruneak erakusten zaizkigu, tokian tokiko musikaz lagunduta, eta ingurune bakoitzeko berezitasunak azalduz.

Guztira, 37 etapatan 800 herri eta 175 mendate igaro zituen. Berak ibilbidean zehar motxilan zeraman bideo-kamararekin hartutako irudiekin osatutako dokumentala da, oso aurrekontu eta baliabide xumeekin, baina gogo eta ilusio handiz egin. Asmoa, gure herrialdetik irten gabe eta modu xume batean planak egiteko ideiak ematea da; etxetik pauso batera askotan kontratatzen ez garen altxor paregabeak baititugu. Herritar guztiak daude gonbidatuta emanaldira.

ANTIXENA GAZTETXEAN - MARTXOAN

► **MARTXOAK 7, OSTIRALA** (19:00)

HITZALDIA: 'Hazi, hezi, izan independentzian'. EHUko irakasle Mario Zubiagaren hitzaldia, Ernai gazte erakundeak antolatuta. Erabakitze eskubidearen gaia landuko da.



► **MARTXOAK 8, LARUNBATA**

Emakumeen nazioarteko eguna.

Erabakitze eskubidez hitz egingo du Mario Zubiagak

► **MARTXOAK 9, IGANDEA** (19:00)

BIDEO EMANALDIA. Estatu Batuetako 1929ko Depresio Handiari buruzko dokumentala

► **MARTXOAK 11, ASTEARTEA** (19:00)

HITZALDIA: 'Brigada eta internazionalismoa'. Askapena erakundeko kideen eskutik.

► **MARTXOAK 15, LARUNBATA** (19:00)



KONTZERTU-AURKEZPENA: 'ONATI 3IZIRIK' diskoaren aurkezpena. Herriko 9 talde eta bakarlariren artean grabatutako diskoa da, gisa honetako hirugarrena; 2006an eta 2009an grabatu ziren aurreko biak. Kontzertuko sarrerarekin (4€) diskoa eskuratu ahal izango da

► **MARTXOAK 19, ASTEAZKENA** (18:30)

HITZALDIA: 'Bizitza ardatz jarriz'. Ekarpen ekologista eta feminista. Herrialde azpigaratuaren aldeko lana egiten duen Elkarheitzten taldeak antolatuta. Hitzaldia kultur etxean izango da, eta ondoren afari-merienda Gaztetxean.

► **MARTXOAK 21, OSTIRALA** (21:00)

BERTSO AFARIA: Bertsolaritzari ere bere tarte eskaini nahi dio Antixena gaztetxeak, eta, iaz bezala, bertso-afaria egongo da bertan Egoitz Aizpuru, Aratz Igarzabal eta Ane Zuazubiskar



bertsolariekin. Txartelak Arranon eta Gaztetxean salgai 5€tan (martxoaren 14tik aurrera 8€).

► **MARTXOAK 28, OSTIRALA** (21:00)

'ABORTATUARTEA' erakusketara aurkeztutako lanen emanaldia.

► **MARTXOAK 29, LARUNBATA** (22:00)

KONTZERTUA: 'Estricalla' eta 'Kimera' taldeen kontzertua.

antzerkia / martxoak 21, kultur etxea, 19:00

'Arquetipos de mujer'

Kultura klasikoa ikasten ari diren Elkar Heziko DBH-4ko ikasleen eskutik 'Arquetipos de mujer' antzezlanak ikusi ahal izango dugu kultur etxean, martxoaren 21ean (19:00). Umorea eta mitologia uztartzen dituen 45 minutuko ikuskizuna da. Juana Lor aktorearen eskutik greziar mitologiako zazpi jainkosen arketipoak ezagutzeko aukera izango dugu, eta XXI. mendeko emakume bakoitzaren baitan dagoen jainkosa deskubrituko dugu.



antzerki solidarioa / martxoak 23

'Vivir en villa Titiritaina'

Pake Leku elkarteko 'Ikusi Makusi' taldeak bere azken lana ('Vivir en Titiritaina') taularatuko martxoaren 24an, igandea, Santa Ana aretoan, (xx:xx). Bertan batutako dirua Parrokiako Misio Taldeak Haitin duen elkartasun proiektura bideratuko da



IKASTAROA

Oinarrizko Joskintza

MARTXOAK 14 - APIRILAK 11

Udal Kultura sailak antolatuta, oinarrizko joskintza ikastaroa egingo da martxoaren 14tik apirilaren 11ra. Josteko makina gehiago ezagutu, botoi bat josi, frakabarrenak hartu, edo telazko nezaser bat egiten ikasiko da, besteak beste. Dorleta Fernandez izango da irakaslea, eta ostiral iluntzetan (19:00-21:00) izango dira saioak. Matrikula, 25 euro (langabetuek ez dute ordaindu behar), dagokion agiria aurkeztuz gero. Izen-emate epea martxoaren 12ra arte dago zabalik, kultur etxean (arratsaldean) edo kultura.idazkaritza@oinati.net helbidera idatzita. Hamar lagunekoa taldea izango da. (Izena gehiagok emanez gero, zozketa egingo da, edo bigarren talde bat sortzeko aukera baloratuko da).

● **Musika bandaren kontzertua**

Iñazio Ibarrondok zuzentzen duen musika bandak hileko kontzertua eskainiko du martxoaren 23an Santa Ana aretoan, 12:45etan.

● **Ikastaroak KZgunean**

OINARRIZKO INTERNET: 'Internet ikastaroa' (mar. 3-14 / 20 ordu); 'Minube' (mar 31); 'Ebay' (mar. 27); 'Paypal' (mar. 27); GOOGLE APPS: 'Google Apps' (mar. 17); SARE SOZIALAK 2.0: 'Youtube' (mar. 19); 'Facebook' (mar. 20). Informazio gehiago: 943 023672 edo tutor.onati@kzgunea.net

'ELTZIA' egitasmoa

2. fasean sartu da



ETEO zaharrea zer egongo den eta funtzionamendurako oinarriak zehazteko bilerak egingo dira martxoan

ELTZIA egitasmoa 2. fasean sartzen da martxotik aurrera. Lehenengo hilabete hauetan gizarteratze eta erradiografia fasean egon ondoren, informazio ugari batu dugu, iritziak, gogoak ... Orain guzti horri forma eman eta sortzeko bideari ekin behar diogu.

Jasotako premia, asmo eta proiektuak kontuan hartuz, honako ibilbide honi ekingo diogu:

6 eltze ezberdin ditugu eta eltze bakoitzean 4 lan bilera egingo dira.

► 1. LAN BILERA: **ZER**: zer da eraikin honetan egon behar dena? Ze baliabide? Ze tamaina? Ze ezaugarri ...?

► 2. LAN BILERA: **NOLA**: nola funtzionatu behar du? Nola egin ekonomikoki sostengarri? Giza baliabideak behar al dira? Eltzeko kideok nola komunikatu eta koordinatuko gara, Zein helbururekin egingo dugu lan... ?

► 3. eta 4. LAN BILERAK, **BATERATZE SAIOAK**: aurretiaz egin ditugun lan bileretan jasotako informazioa bateratu behar dugu, parte hartzaileei aurkeztu, kontrastatu, osatu eta adostu. Lan hau bi lan bileretan egingo dugu.

■ BILERA EGUTEGIA

SORMEN ELTZIA	
LAN SAIOAK	BATERATZE SAIOAK asteazkenak
astelehenak 19:00etan	19:00etan
martxoak 10	maiatzak 14
martxoak 24	maiatzak 28
GORPUTZ ELTZIA	
LAN SAIOAK	BATERATZE SAIOAK asteazkenak
astearteak 19:00etan	19:00etan
martxoak 11	maiatzak 14
martxoak 25	maiatzak 28
HERRI MUGIMENDUEN ELTZIA	
LAN SAIOAK	BATERATZE SAIOAK asteazkenak
asteazkenak 19:00etan	19:00etan
martxoak 12	maiatzak 14
martxoak 26	maiatzak 28
MUSIKA ELTZIA	
LAN SAIOAK	BATERATZE SAIOAK asteazkenak
astelehenak 19:00etan	19:00etan
martxoak 31	maiatzak 14
apirilak 14	maiatzak 28
UDAL ELTZIA	
LAN SAIOAK	BATERATZE SAIOAK asteazkenak
astearteak 10:00etan	19:00etan
apirilak 1	maiatzak 14
apirilak 15	maiatzak 28

SORMEN ELTZIA: arte ederrak, irudia eta diseinua, zine mundua, argazkilaritza, artisautza, moda, eskultura, marrazkigintza, ... sortzaile sentitzen direnen eltzia.

GORPUTZ ELTZIA: dantza, antzerkia, yoga, dantza afrikarrak, masajeak, ... gorputzarekin adierazten duten diziplina ezberdinen eltzia.

HERRI MUGIMENDUEN ELTZIA: herriko gizarte eta kultur mugimenduak, elkarteak, taldeak, norbanakoak biziko diren eltzia.

MUSIKA ELTZIA: musika sormena oinarri duen musikariaren eltzia. Rock, rap, soul... talde handiak, txikiak, norbanakoak ... musika sortzaileen eltzia.

UDAL ELTZIA: udaletxeko departamentu ezberdinek dituzten beharrezkoak ere kontutan hartu behar ditugulako. Udal zerbitzuen eltzia.

■ AUZOTARRAK ETA EKINTZAILETASUNA

Goiko taulako bost eltze edo lan-talde huez gain, badaude beste bi, baina hauek dinamika eta lan egiteko era ezberdina eskatzen dutenez, bide propioa egingo dute:

► **AUZO ELTZIA**: auzoak edo herriko beste auzotar batzuk planteatu ahal dituzten beharrezkoak, nahi edo proiektuak jasoko dituen eltzia. Auzoko jubilatuek, elkarteak, familiak, ... elkarrekin diseinatu beharko duten proiektua.

► **EKINTZAILETASUNA ETA ENPLEGUA**: Eltzia egitasmoak herriko enplegu sustapenean eta herriko gazteekin ekintzailetasunean murgiltzeko aukera ematen duela sinesten dugu. Udaletxeko teknikari, zinegotzi eta herriko ekintzaileekin batera landu nahi dugun ildoak dugu honako hau: nola egin dezakegu eltzia egitasmoak enplegu sustapenean lagundu dezan? la erantzuna topatzen diogun galdera honi.

caravanas  oñate



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasoñate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Martxoak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta
27 eta apirilak 4, 5 eta 6.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Martxoak 10, 11, 19, 20, 28, 29
eta 30, eta apirilak 7 eta 8.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Martxoak 12, 13, 21, 22, 23 eta 31,
eta apirilak 1.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Martxoak 6, 14, 15, 16, 24 eta 25,
eta apirilak 2 eta 3.

Guardiako taxilariak

MARTXOAK 3 - 9

JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

MARTXOAK 10 - 16

JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

MARTXOAK 17 - 23

JOSE LUIS RABANETE
600 57 50 92 / 658 73 27 09

MARTXOAK 24 - 30

JOSU LERTXUNDI
663 031 322

MAR. 31 - APIRILAK 6

ANA ORUETA
650 059 999 / 943 53 40 82

OÑATIKO

TAXI GELTOKIA

943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA

943 400 500

Telefonointeresgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa.....943 78 34 53
Arrikruz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola .943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa.943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritza943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILEAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIDAK

PESA902 10 12 10
RENEFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

MARTXOAK 14
APIRILAK 4
MAIATZAK 9
EKAINAK 13
IRAILAK 12
URRIAK 10

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

MARTXOAK 25

Plastiko batzea ohiko bilketa
puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutzuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbatak 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino
lehen, 943 71 19 38 zenbakira
deitu behar da. Traste zaharrak
20:00-22:00
arteana atera behar dira.

Merkatu Txikia

Haur txiki bat orduka zaintzeko Oñatiko
persona gazte baten bila gabiltz. Deitu:
652722933

Hektarea inguruko lursaila erosiko nuke,
ortua, frutarbolak eta animaliak jartzeko.
Animalientzako borda baldin badauka,
ezin hobea. 661 770 179

Etxebizitza salgai Olakuan. 3 logela,
jangela, sukalde eta 2 komun
(berrituak). Igogailu eta beragailuarekin.
180.000€. Deitu: 635 062 479

Etxebizitza alokatzen da Oñatin. 70m².
Bi logela, bainugela bat, sukalde
jantzita, igogailua, kalefakzioa, armairuak,
balkoia, eguzkitsua eta erdialdean. 657
706 746

Pisua errentan hartuko nuke. Oñatiko
bikotea. Deitu: 610211522

Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean
(68 m²). Egongela, sukalde, komuna, bi

logela eta ganbara. Orain merkeago.
Deitu: 626684112

Klase partikularrak. Lehen Hezkuntza,
Hezkuntza Bereziaren graduatutako neska
2013/14 ikasturtean Lehen Hezkuntzako
ikasleei klase partikularrak emateko
prest. 687 11 44 74.

Garaje itxia salgai Bidebarrieta 21ean.
Sarrerako eta garajeko atekak
automatikoak. 656794815

Pisua alokairuan hartuko nuke Oñatin. 2
edo 3 logelakoa. Deitu: 670 547 105

Lokala alokatzen da Bidebarrieta kalean,
68m²-koa, obra einda. Deitu:
943533637

Pisu berria salgai Oñatin, Kurtzebide
kalean. 90m²; trastelekua eta 2 garaje
aukeran. Deitu: 651 709 257

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografixia

Etxaluzeko plazatxua, orain dala ehun bat urte

A purtxo bat aldatu da, bai, baiña antz emungo zotsain plazueliari, ezta? Izan be, **itturria** betikua da. Bueno, betikua edo XIX. gizaldixaren akaberakua. Kale aldian dittugun itturri gehixenen antzera, **Juan Karlos Altzaa alkatiaren** denporan jarri zan hau be 1880-1882 bittartian, **Casto Zabala** eta **Pedro Jose Astarbe** arkitektuen diseiñuarekin. Burdiñazko zatixak Parisen moldau ziran **A. Durenne de Sommevoire** enpresan. Kalegoienako itturri honek, dana dala, gaur egunian eztakon berezittasuna erakusten dau argazki zahar honetan: goixeneko partian **farol galanta**. Hor ipini zanian, etzan artian inddar elektrikorik Oñatin. **Lámpara de reverbero** izeneko sistemía ebalten ei izan orduan. Laister, baiña, etorri xakun elektrizidadia, fotografixan ikusi geikien moduan.



Ingurukaten dittuen **etxietatik bakarra** gerketan da orain **itxura horrek**: atzian **Etxaluz** dago, XIX. mendian jaso eta 1970ko hamarkadan eretsi zana; eskumako aldian agiri danari **Korkostegiña** esaten xakon: erantsita eukan beste etxe batekin batera bota eta euren orubian **Damian Lizaur** arkitektuak oraingo bizitzaia proiektau eben 1923-1924 aldera **Arzelus familixiarentzat**; hurrengua goruntz **Renonena** lez ezauketan dogu, 1895 inguruan **Rufino Renom**-ek jaso eragin ebelako: behian **Arzuagatarrak argazki-dendia** euki euen eta etxe horixe da, hain zuzen be, igualtsu daguena gaur egun; eta horren ondokua be ondo ezaguna izan zan, ba, XX. gizaldixan: hortxe kokatu ziran urte osuan **Cenicero** tabernia lehenengo, **Urubil** tabernia ondoren, eta azken aldera **Ikastoliaren** nahiz **Laixanen tabernak** herriko jaixetan; eta **Auzotxon** (Marzelino Zelaia kalia) agiri dana **Umereztarren etxia** zan: banasta- nahiz ardau-negoziuan ziharduen familixiarena.

Baiña **polittena** eta interesantiena, akaso, kalia agerketan diran **herritarren irudixa** dogu: **zelako jantzixak!** emakumienak batez be; umien erropak be majo aldatu dira. **Dantzan** dihardue sueltuan emakume eta gizon batzuk. Horma kontrán dago **dultzaiñerua** eta bere eskuman ate onduan **atabalerua**: Zeintzuk ete dira musikuok? Nahiz eta erabateko segurantzariarik ez euki, **Martin Iñurritegi Martiñola** eta **Tomas Uribarri Danborrerotxo**, txantxikuar mitikuak, izan leikiela pentsaitten dogu. Hantxe inguruan bizi ziran bata zein bestia. Ia norbaitte argiketan doskun zalantzia. Emun dittugun datuak kontuan izanda, fotografixiak gutxienez ehun urte eukiko dittuela uste dogu, gehitxuago ezpada.

J. E

Argazkixa Oñatiko udal artxibuan gordetan da eta Gomendio-Lizaur fondokua izango da ziurrenik. Eskerrak euren laguntzaiaगतik Izar Salaberri artxibozaiñari, Joxe Mari Urzelai eta Xabier Zelaiari.

Fan zan abenduko zenbakixan gogoratu gittuan etxe berezixen artian bat aittaketia ahaztu xakun, eta ez botata edo ezkutuan eguelako: **Osasun-billa** (edo **Osasun-villa**) izenekua. Pepe Zulueta oñatiarrak jaso eragin eben Torrealdean 1929 inguruan Txiletik erdi gaixorik jaixoterrira etorri zanian. Arkitektua, beste askotan letxe, Damian Lizaur izan zan. Peperen andria Josefita Luzar zan eta familixa horretakuak ebalu euen gerora. Orainddiok lehengo lekuan dago, Zumeltzegiko torriaren onduan, baiña aldatuta. Urte batzuk hutsik egon ondoren, saldu egin euen Luzartarrak eta jabe barrixak beste itxura bat emun otsan eta izena kanbixau. Milla esker argibidiongatik Iñaki Ormazabal eta Jabier Galartzari.



Arkauz zure etxea da.

GRUPO **ARKAUZ**

ARETXABALETA 1950 - 2014 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Aldizkarian
publizitatea
sartu gura
dozu?



Aldizkarian
publizitatea
sartu gura
dozu?

Eskatu konpromiso barik gure tarifak

publi@oinati.net

943 78 20 72 edo 617 80 30 25

SAN MARTIN GUNEAN

2, 3 eta 4 logeletako ETXEBIZITZAK

177.259€ -tik

*obra hasiera 2014ko Apirila



MOJASORO S.L. Informazioa: 689 420 761 Eraikitzailea: Egaralur www.egalarur.net

